

hondarra

PATXI LOPEZ DE TEJADA



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

PATXI LOPEZ DE TEJADA FLORES

hondarra

SURFLARIAK

Bi surflari iraileko ozeanoko arrastirian, ohol murgilduetan eserita, azken olatu mardul nagietan gora eta behera. Ez da irudi txarra, pentsatu zuen aitak. Semeak zeharka begiratu zion, baina ezer esan gabe.

Atzean, hondartzan, toldoetako gona zuri urdinak jasoak zeuden dagoeneko, eta zabor puskak arrotzak. Azkeneko familiak eta lagunarteak arrapaletara abiatzen ziren astiro eskuetan saski beteak zeramatzatela. Soroslea bere dorretik joana zen eta txakurren bat hondarra ukitzen hasten zen ahalkez eta urduri, jabearen begirada beldurtipean.

Uretan ez zen ia inor gelditzen jadanik, eta zegoen gazte bakarra, urrun haitzen aldera, itsasertzerantz arraunean ari zen.

Azkenekoa hartuko dugu eta aterako gara? Galdetu zion aitak semeari, eta hark buruko baiezko keinuaz erantzun zion. Ea on bat datorren... esan zuen aitak.

Baina zetozen uhinak baxuak edo txikiak ziren, edo haratago lehertzen ziren.

Aitak semearen urpeko oinaren zuria bilatu zuen begiradarekin. Hotz zara? Ezezkoa egin zuen mutilak buruarekin.

Semearekin egotea gustuko zuen, funtsean egin beharrekoa egiteak ematen zuen gustua besterik ez bazen ere, auskalo. Agian jatorrizko zioa hori zen, baina hala eta guztiz ere gustuko zuen berarekin denbora pasatzea, bere bildotsa paisaiaren kontra ikustea mendian edo kalean aurreratzen zenean, bere erantzun herabetiak entzutea, jendaurrean kikiltzen ikustea, edo bere gauzak kontatzen hasten zenean aditzen geratzea.

Berak beti ihardesten zion, hizkera eziaz, mintzatzen jarraitzeko modukoa, baina gaia berehala agortzen zitzaien. Orokorrean mutikoa hasten zenean zerbait galdetzeko zen, Zein bala kalibre da elefanteak hiltzeko eskopetetan erabiltzen dena? Zenbat egun behar dira Europatik New Yorkera ontziz joateko? Ba al dira tigrerik gelditzen Indian? Zenbat egun iraun dezakezu bizirik jan gabe? Eta edan gabe? Krokodilo bat eta anakonda baten arteko borroka batean zeinek irabaziko luke?

Handia hasten zenean berriz zer baitetan arreta jartzeko esateko edo bere gauzez, eskolez edo lagunez itauntzeko ohi zen. Begiratu zer forma berezi daukan harri hark, zer gogorarazten dizu? Begira zelako distira estela sortzen duen eguzkiak itsasoan. Noren aurpegia dakusazu hodei haren profilean? Nor da zure lagun minena orain?

Baina gero, aurreneko erantzunaren ondoren, edo bi esaldi pasa eta gero, azalpena eman eta gero, ez zuten jarraitzen. Ezin zutela jarraitu zirudien. Isiltasuna nagusi.

Gurasoak zarete, ez seme-alaben lagunak, eta ez saiatu lagunak izaten zeren ez baitu zentzurik eta umeak nahastea da lortuko duzuen bakarra, esan zuen psikologoak hitzaldian.

Badakizu ordu honetan, iluntzean, marrazoak sakoneretatik azalera igotzen direla eta janaren bila hasten direla? esan zuen mutikoak. Aitak konplizitate irribarre bat eta bekain goratze pare bat itzuli zizkion. Imajinatzen duzu bizkar-hegats bat agertzen ikusten dugula?, gertutik?

Nola jokatu zenuke? Buelta eman eta oso azkar hurbilduko nintzateke hondartzara, esan zuen umeak.

Oso erraza da esatea, zuzendu zion aitak, mugitzeko eskuak bederen sartu beharko zenituzke uretan, horrela arriskuan jarriz.

Ukabilkada bat emango nioke muturrean aurrena. Ja ja, egin zuen barre aitak, hori ikusi behar! Uretan sartuko zinateke hori egiteko? Mutikoa isilik gelditu zen, pentsakor.

Bat batean barrurantz begiratzeko keinua egin zion aitak, olatu handi eta gandordun bat zetorrelako urrundik. Biak biratu egin ziren, oholetan luzatu eta eskuekin hasi ziren higitzen, baina zeuden lekura heldu zenerako olatua indarra galduta zegoen eta erdira uzkurtua. Ez zuen merezi ezta saiatzeak ere eta aldi berean konturatu ziren biak. Batak besteari begiratu, itzuli eta eseri egin ziren biak berriro.

Pixka bat barrurago sartuko gara? Proposatu zuen mutilak, baina aitak ezetza eman zuen. Zertarako? Gora so egin eta morruan gizon bat ikusi zuen beraiei so zegoena, ohiko arrantzaleen aldamenean.

Eguzkia baratu egin zela ematen zuen, ez zelako ez sartzen, ez jaisten, ez gorritzen, ez ezer. Agian hiriko talaietatik Josueren bat gelditzeko agindua emana zion eguzkiari; agian azpian, ozeanoaren baitan, arrainak eta krustazeoak aktibatzen hasten ziren eta moluskuak zabaltzen; agian hoteletako logeletan bikoteak amodioa egiteari ekiten zioten. Baina han, itsasertzean, dena geldirik zegoen hilerri batean bezala, denbora pausatu izan balitz bezala.

Imajina ezazu edozeren ertzean gaudela orain, esan zion aitak.

Semeak begietara begiratu zion. Zer?

Badakizu planeta hau izar sistema batean sartuta dagoela, eta sistema galaxia batean, eta galaxia unibertso batean. Eta unibertsoa diotenez hedatzen ari dela, zeren gainetik?, ezerezaren gainetik? Ez dakigu, jakiterik baldin badago, beharbada ezin da jakin, beharbada ezereza bera ere ezin da ulertu. Baina demagun uhin horretan gaudela, zu eta biok, taula hauetan eserita, orain, bazter hartan, aitzinatzen den uhin horretan zamalkatuz.

Unibertsoaren bazterrean zabaltzen, unibertsoaren ertzeko uhinaren gainetik ezerezaren barrena aurrera egiten.

Begiratzen segitzen zuen mutilak, eta interesa antzematea iruditu zitzaion bere bisaian.

Jakingo bagenu, esango baligukete mundua hemendik ordu batera amaituko zela zer egingo zenuke?, galdetu zion aitak isilune bat pasa ondoren.

Zergatik?

Ez dakit ba... Asteroideren bat gerturatzen delako eta epe horretan lurra joko duelako, lurreko erdigunea gehiegi berotzen ari dela deskubritzen dutelako eta lehertu egingo dela, ez dakit ba, Ipar Koreak nahi gabe misil nuklear bat jaurtikitzen duelako, edozein arrazoiengatik, hori gutxienetakoa da. Zer egingo zenuke.

Ba, amatxorengana joango nintzateke.

Zure bizitzako azkeneko ordua izango litzakete!, desio edo nahi bat betetzeko azkeneko aukera...

Berdin zait, amatxoren hilobira joango nintzateke, oinez beste modurik ez balego, eta bertan eseriko nintzateke itxoitera, berarekin egoteko azkeneko minutuak.

Eta zu?

Zurekin joango nintzateke. Hara edo edozein lekutara. Zurekin igaro nahiko nuke azkeneko ordua.

Eta amatxorekin?

Bai, jakina. Zurekin eta amatxorekin.

Tutik esan gabe lehorreratu ziren eta aitak semeari neoprenozko jantzia kentzen lagundu zion, bere gorputzaren epeltasuna eskuetan sumatuz. Segundo frakzio baten ondoren hondartzako dutxapetik irteten ikustean, aitak berriro sartzeko agindu zion hatzarekin.

Kresala ez zaizu joan, azkura hasiko zaizu gauean sorbaldan eta lepoetan gatzarengatik eta ezin izango duzu lo egin.

Ura oso hotza dago!, etxean dutxatuko naiz.

Aitak toaila ireki eta bildu egin zuen, besarkada estu bat emateko aprobetxatuz.

Taulak oihalekin estalirik eta beso bakoitzean eutsirik kalea zeharkatzen zeudenerako semaforoak urrutirago ikusten ziren, gaua erortzen zelako zeinu. Igarotzen zen jendea, bikoteak eta andre pareak, begira gelditzen zitzaizela iruditu zitzaion. Kotxeko irratiko pantaila digitala pizteak bero eman zien biei, eta modako musika txarra ozenki entzuten hasteak ere bai.

Trastelekuan gauzak ipintzen bukatzetik igorik goian ate joka hasi zirenean elkarri begiratu zioten.

Ama sofatik altxa zen eta irribarre garbi batez ireki zien. Zer moduz? Mahaia jarrita zegoen eta telebista piztuta zegoen, bolumena altuegia.

JAKINTSUA

Lagun bat daukat komertziala izatea gustuko duena, horretarako bokazioa daukala dio. Beste inon ez al zaizu ezer atera? galdetzen diot, eta ezetz, aterako balitz ere ez lukeela nahi, ez duela probatu nahi ere. Saltzea dela gustatzen zaiona.

Hasiera batean ez nion sinesten, neronek saltzaile bezala izandako eskarmentua gordina eta nardagarria iruditu izan zitzaidalako, izugarria apur bat ere gogoratzen nuen bezala. Baina horrenbeste aldiz gauza bera esaten zidan ezen azkenean egia zela ikusi nuen.

Ondo ulertu, ez da alferrikakoa iruditu zitzaidala esperientzia, ezta pentsatu ere. Aitzitik norberak nerabezaroan garatutako harropuzkeriaren zati bat kentzeko terapia aproposatzat jotzen nuen errefusapen errepikapen jasotze etengabea zeinean komertziala lana datzan. Derrigorrekoa izan beharko lukeena. Tratu sozialean irekitzeko ere bai.

Galtzen ikasten hasteko horrela deitzearren, frustrazioa bideratzen ikasten hasteko. Baina ez, ez da lana berez gutxiesgarria kontsideratzen nuela, zera da, bizitza osorako lan bezala astunegia egiten zitzaidala irudikatzea, besterik gabe, epe luzean gehiegi eskatuko lukeen lan bat: zure egoa erabat edo ia erabat jatea, beste testuinguru batean agian zure burua transzenditu suposa lezakeena baina diruaren truke besterik ez egitean zure nia alferrik eta era tentel batean galtzea litzatekeena.

Amodiotsuen gisara besteen balioestearen menpe eta bila eta zain uneoro, nahiz eta zure aurpegia eta gorputza edo nortasuna alde batera utzita porrota produktuari lepora diezaiokezun bederen, finean arazoa zu zarela dakizun arren.

Beharbada denboraren poderioz jarduera hartan barne halakreta bat sortzen duzu eta ezetzek eta ezinek gero eta gutxiago hunkitzen zaituzte, sendagileei gertatzen ei zaien bezala, auskalo, baina ez dut uste nik nire kasuan gauza izango nintzatekeenik bizimodu horrekin aurrera egiteko luzaro depresio batean erori gabe edo auto-estimuan kalteak nozitu gabe, ezta bataz besteko gizakia ere, ez sentiberak bakarrik.

Miresmena diet egin ezin nitzakeen lanetan dihardutenei, harakinei egunero odola eta haragia mozten dutenak nahiz eta abereena izan, forentseei gorpuak ireki ondoren berenera doazenak

afaltzera, umeekin jolastera eta lo egitera, prostitutei beren gorputza eta denbora saldu ondoren maitasunarekin amets egin dezaketenak. Baina komertziala... diruagatik, diruagatik bakarrik... zure bizitza osoa zure arima merke saltzea ematen du, debalde ere agian lanpostu gehienetan soldata finkorik ez dutelako eskaintzen eta ateratzen duzun guztia komisioak dira, eta salmentarik gabe dirurik ez.

Zahartzen zarenean, zure itzala herrestan eramaten leku batetik bestera balizko erosleen arretaren eske erromes baten modura, zure familia elikatzeko eta zure etxeko errenta ordaintzeko hilaren erdira iritsiko zaren ere jakin gabe...

Egia esan hori esan zidanerako, gustatzen zitzaiola, aspalditik komertzialekin manera onak izateari utzita nintzen. Lan horretan ibili ondoren eta urte batzuk geroago atsegina izaten saiatzen nintzen arrazoi nabariengatik, ukatze heziekin erantzuten, baina batetik horrek berriketa ezertarako luzatzera zekarrela ikusita eta bestetik estresaren eraginez forma gehienak galtzera bultzatzen gaituena zakarra izatera itzuli nintzen gainontzekoak bezala.

Baina hala eta guztiz ere harrituta geratu nintzen dorreetan gertatu zitzaiona kontatu zidanean, dorreak deitzen baikenuen auzo garaiko eraikin altuetako gunea, hirurogeiko hamarkadan etorkinak sartzeko egin zituzten porlanezko etxe masibo zatarrak.

Ni aspaldin handik ibili nintzen ere bai lan batean, inkestak egiten, eta meategi bat ziren, ez zenuelako etxez etxe ibili behar euripean, edo jendea gelditzen kale gorrian: sartu, igogailua azken pisuraino hartu, jaisten hasi eta pisuz pisu ate joka egunean behar beste elkarrizketa egin zenitzakeen, ziur aski dorre bat ere agortu gabe, eta akabo.

Gauza da berari ate horietako bat emakume batek ireki ziola, eta bere txapa ematen ari zela, tira, uste dut sasoi hartan alarmak saltzen zebilela, barrutik senarra edo bikotearen oihu bat entzun zuen, Norekin ari haiz hizketan?, eta andreak barrura begiratu eta Ixo! esan zuen, eta buruarekin keinu bat egin zion jarraitzeko. Eta nik jarraitu nuen, esan zidan lagunak, profesionala naizelako.

Eta besteak segundo batzuen ondoren, Popatik hartzera bidaliko duk hori? Zer hostia?, eta emakumea adi, eta bera mintzatzen segi... Bat batean Mekaguendios! garrasi bat entzun zuen arte eta gizona kolpe batez hurbiltzen sumatu, eta nire laguna korrika eta eskailerak jaisten hasi

zen, baina tipoa eskaileretatik zerraiola nabaritu zuen, aldarrika eta mehatxuka, Muturrekoa emango diat! Subnormal hori! Egoteko hor!

Eta hiruzpalau solairuz behera egin behar izan zituela lasterka azkenean ihes egiten lortu arte, zelako zoroa, eta egun hartan bai beldurtuta gelditu zela, munduan zelako jendea dagoen ikustean, eta etxeratu zela, baina biharamunean kalean zegoela berriro jo eta su inoiz baino indar gehiagoekin.

Gizajoa, gizajoa? Zergatik gizajoa? Besteen interesen zerbitzura azken mailako mertzenario bezala aritzegatik? Zer egiten dugu besteok ba? Zerbait uzten duelako salmenta bakoitzean, iruzur bakoitzean, etsipen bakoitzean? Eta guk? Zer besterik egiten dugu, zer gertatzen zaigu besteoi ba egunero?

Ez al da izango berak gainontzekoak baino hobeto, lehenago, edo osorik ulertu zuela gakoa? Denok gure burua saltzeari etengabe ekiten diogula eta horretan zehazki datzala elkarbizitza, sekretua hori dela? Denok biologikoki programatuta gaudela elkarri gurea saltzen saiatzen ibiltzera eta hori dela aurrera ateratzeko, bizirauteko bide bakarra? Nahiz eta emaitzarik ez lortu? Nahiz eta prozesuan minduta suertatu behin eta berriro arnas egiten dugun bakoitzean? Nahiz eta finean gauza berekin etxera itzultzen garen?

Ez duela inork edo ia inork onartzen, baina interes nagusia, benetako interesa, azpi-interes handia, hori dela, gu eta gurea saltzea, diruaren truke ez bada ere, aintzatespenaren truke, onespeneraren eske, begirada edota esamesa bakar bat erregutzeko besterik ez bada ere.

Ez al zen bera beharbada sinpleki gu baino ausartagoa zela edo gutxiago hipokrita bederen? Zinezkoagoa, zilegigoa akaso, gure artean egiari euriari aurre egiteko prest eta heldu adina zen bakarra? Zuzenean diruaren truke, eta bere burua oro har edo bere artearen ordeztu produktu bat plazaratzen gainera. Itzulgingururik gabe, gezurrik gabe, aitzakiarik gabe.

Tontoa al da?

PASAIA

Tipo interesgarria iruditu zitzaidan Fernando, eta niregan benetako interesa erakusten zuena gainera. Aitaren laguna zen, eta aitaren gomendioz bere bulegora joaten hasia nintzen laguntzera, lan eske egia esan, bera hirigintzako abokatu ospetsu eta diruduna omen zelako. Eta berak ondo hartu ninduen.

Aitak esan zidanean kezkatu gelditu nintzen juxtu bolada horretan lagun batek esan izan zidalako bere gurasoen gomendioz abokatu baten despatxura jo izan zuela laguntzaile postu edo egonaldi bat lortzearren, eta abokatuak konpromisoarengatik entzun egin ziola baina azkenean purrustada bota eta bidali egin zuela. Baina nik zorte ona izan nuen, Fernando gizon jatorra zelako, beti estresatuta eta kopetilan ibili arren, eta oso ondo hartu ninduen eta aferetan egiazki sartu nahi ninduela nabaritzen zen.

Baina gero buelta etorri zen. Buelta ez zen dirurik ez ikustea edo ia ez ikustea hilabete luzeetan egindako lan oparoarengatik, ez, hori dagoeneko espero nuen. Aitak esana baitzidan niri landutakoa zoragarria iruditu arren horrelako jardueretan kalitatezko lan duin bat plazaratzeko gauza izan baino lehen bat luzaro trebatu behar zela. Ez eta askotan jaramon askorik ez egitea ere, gehienetan horren lanpeturik zebilelako bera ezen zalantzak edo orientazioa galdetzeko paradarik ez niola aurkitzen, eta formulak eta trikimailuak neronek bilatu behar izan nituen nire kasa ikasten edo beste batzuei galdetzen, nire adinekoei eta ni bezain hasiberriei normalean, edo neronek asmatuz zuzenean. Saio eta akats metodoa. Horrela behar zuen izan agian.

Buelta zen berak eraman nahi ez zituen kasuak pasatu zizkidala, ezezkorik emateko egoeran ez nintzelako. Orain atzera begira komenigarritzat jotzen dut, baina orduan ez, haserre nengoen.

Aurrekoa zera izan zen, polizia nazional bat defendatzea alokairuzko epaiketa batean, poliziak maizter bezala errenta behar zenean ez zuelako ordaindu eta zorreko kopurua gero eta handiagoa zen. Bezeroak arazoa ekarri zionean berak ez zuelako errefusatu nahi izan, poliziei aurre eman nahi ez zuelako edo, susmatzen nuen, beste aldea, jabea, beste abokatu bat zelako eta berak ez zuelako nahi beharbada beste abokatu batek poliziei aurre ematen ziela ikustea.

Kontua da pasatu zidala, eta nik eraman behar izan nuela. Itun batekin konpondu genuen gatazka nahiko azkar, poliziak zor zuena ordaindu zuen interesik gabe (eta interesak diru asko ziren) eta prozesuko kosturik gabe (hori jabeari berdin zitzaion berak prestatu izan zuelako demanda), eta listo.

Bigarrena itsasontziko izan zen. Ez zait bururatzen zergatik ez zuen ardua hartu nahi izan, agian ezberdina zelako asuntoa, atipikoa, eta berari eta beste abokatuei ordurako ondo zezaguten zuten alorra bakarrik zapaltzea gustatzen zitzaizela igartzen zitzairen.

Arazoa zera zen, Pasaiaiko kai batean Panamako bandera zeraman merkantzia-ontzi indiar bat porturatuta zegoen, eta ez zituen ezta egunero sortzen ziren tasak ordaintzen ezta atera nahi ere. Arrazoa tripulazioak ez zuela kobratzen baitzen, armadoreak ez zizkietelako soldatak bidaltzen, eta soldata jaso ezean ez zutela lan egin nahi eta bidaia eta garraioarekin jarraitu. Beraientzat greba edo protesta egiteko era bakarra baitzen.

Armadorea ez dakit nongoa zen, non zen esan nahi dut, baina tripulazioa filipinarrez osatua zegoen.

Larunbat goiz eguzkitsu batean gorbata jantzi, maleta hartu eta autobusean eseri nintzen. Eta kristalak eta paramentuak nire aurpegitik desfilatzen hasi orduko Mirakruz gainerantz igotzen hasi ginen astiro.

Gain hura, Mirakruzekoa, muga zen. Ordurako apur bat gutxiago, heldua nintzelako eta bizitza ezagutza pixka bat lepoetan neramalako jadanik.

Baina txikitán, nerabezaroan gehien bat, hor bukatzen zen Donostia zibilizatua eta beste Donostia hasten zen, auzo basatiak, errebal ankerrak. Lurralde mitiko bat zen non krimenak antolatzen ziren eta iluntzean ez zegoen kalera ateratzerik, gure Bronx. Hortik zetozen kinki bandak, baskak izenekoak, zeintzuen lege bakarra elkar defendatzeaz aparte beren auzoan ez lapurtzea zen.

Handik higitzen ziren trafikanteak eta Etako komandoak trafikanteak hiltzen zituztenak, emagalduek eta bizkartzainak... Barruti arriskutsu bat Jack Londonen liburuetan agertzen diren bezalakoa, arratsalde batean esploratzekoa, magikoa, bertigoaren erakarpena zeukana.

Baina larunbat goiz argitsu hartan dena bakean zegoen porturantz jaisten ginela. Egia esan nondik sartu ere ez nekien, eta horretan ari nintzen.

Azkeneko geltokira iritsi eta Check point Charlien egon zitekeen garita batera bidali ninduten, eta behin hango guardia zibilei nor eta zer nintzen azaldu niela, eta zertara nentorren, kaiaren atzealdean ontzi gorri handi bat eta haren sabelera barneratzen zen pasabidea seinalatu zizkidaten.

Pasabidea igo, "Lawyer!" oihukatu eta goian tipo beltzaran bibotedun bat agertu eta irribarre zabal bat eskaini zidan, "Come in!". Eta sartu nintzenean bostekoa luzatu eta une nazkagarri bat izan nuen, eskua hezea zeukalako, epeltasun arraro batekin, bere azazkal luzeak eskumuturretik pasa zizkidalako nahigabe, eta batez ere tipoak ez zuela irribarre tentel hura ahotik kentzen, hain zen faltsua...

Bere aurretik metalezko korridore batetik jarraitzeko keinua egin zidan, eta jangelaraino gidatu ninduten berak eta beste marinel pare batek bikik ematen zituztenak, eta ezpainen ingurutik sasi kokospeko bera zeukatenak.

"Do you want to have a drink?" galdetu zidan hortz zuridunak, "What do you offer?" erantzun nion nik nekez, "A coffee? A tea? Something to eat?" proposatu zidan berak hatz itxiak ahora hurbilduz jatekoa eginez. Tontoa bezala geldituko nintzatekeen tipoa bere irribarre jarraiarekin nabarmendu izan ez balu tontoa bera zela.

Burdinazko jarlekuan eseri eta koaderno, galdetegia eta boligrafoa palasatik hartu eta mahaiaren gainean kokatu nituen. "Your problem is...", irribarretsua kapitaina, kontramaisua edo beste kargu bat ez bazen ontzian bozeramaile izendatuko zuten, zeren besteek, eta hiru marinel gehiago bertaratuak ziren, ez baitzuten tutik esaten. Edo ingelesez zekien bakarra zen agian, auskalo.

Egoera azaldu zidan, lau hilabete zeramatzatela soldata kobratu gabe, eta nahiz eta armadoreak behin eta berriro ordainketa tramitatzen eta bidaltzen ari zela agintzen zuen, emandako hitza ez zuen betetzen, eta inolako bermerik ez zutela behin helmugako portura iritsita zor zitzaien dirua jasoko zutenik. Eta familiak zain zeuzkatela beren hirietan. Eta itsasoan orain dela aste bat egindako bilera batean Pasaian gelditzea erabaki egin zutela aho batez, eta dirua jaso arte ontzia ez zutela mugituko.

Eta ez zutela ontzitik zertan atera behar, eta hornidura franko zeuzkatela ontzian luzaro egoteko, eta bazekitela polizia ontzian ezin zela sartu, baina sartzan baziren ere ezin izango zutela ontzia mugitu, eta mugitzekotan ere nora eramango zuten, ez baitzen beraiena. Eta kobratu arte bertan geldituko zirela, eta sendagile bat sartzea eskaini izan zirela baina ez zutela behar, eta bazekitela nire lana ez zela armadoreari zorra erreklamatzeko, baina egitea banu ondo ordainduko zidatela, eta horrekin dena konponduko zela. Eta berriro irribarre ergel hura.

Entzun ahala galdetegia betetzen joan nintzen, eta berak bukatu zuenean formularioko oharretarako lekuan zenbait esaldi idazten jarraitzen nengoen oraindik.

“Did they tell you about the other problem?” esan zidan, eta nik begirada altxatu nuen tonuagatik zerbait berezia antzeman nuelako. “We have a man inside the ship, he’s not with us, so...”.

Harrituta geratu nintzen, Nola arraio esaten zen polizoi ingelesez. “A hidden man?”, baiezko keinua egin zidan buruarekin.

Isilune bitxi bat egin zen, baina tipoa serio jarri zen bederen azkenekoz eta irribarrea joan egin zitzaion.

“Can I see him?”, eta berak zalantzako momentu bat izan zuen baina baiezkoa egin zuen berriro buruarekin, eta gelan zegoen bati zerbait esan zion ez dakit zein hizkuntzatan.

Atean gizon gazte beltz bat agertu zen, artilezko jertse urdin bat jantzita. Irribarre batez agurtu nuen, baina ez zidan itzuli, eta nire aurrean eseri zen. “Are you ok?, English? Français?”. Berak ez zuen ezer adierazi.

“Are you alright?”, “Are you a prisoner?” , “Political refugee?” Erantzunik ez.

“Are you seeking for asylum?”, kementsu zuzendu nion galdera burua makurtuz; eta azkenean erreakzio bat atera nion, burua astindu zuen. Zer esan nahi zuen? Ideiarik ez.

“Where are you from?”, “where do you come from?”. Galdera mimikaz jakinarazten saiatu nintzen, begiradak lotu nahian, baina alferrik, nola egin ez nuen asmatzen.

“You just want to follow travel?” esan nuen atzera eginez galdera tonuarekin baino baieztapen modura ia.

“Do you want to go out?” saiatu nintzen berriro eskua luzatuz eta kanporantz eraginez, “Go out?”. Ezezkoa egin zuen azkenik buruarekin. Beraz bidaia jarraitu nahi zuen beste herrialde baterantz. Beraz ez zidan ezer esan nahi ezer egin ez nezan bera jaitzarazteko hemen. Beraz ez nion ezer aterako, beraz hobe galdetzen ez jarraitzea.

“Do you need something?” esan nion xuxurla, arreta erregutuz ia. Aurpegi hieratiko bera.

Pasabidetik asfaltoa zapaltzera pasatzean egindakoa zer zentzu zeukan oldozten gelditu nintzen, ordainduko didatena irabazi egin izan nuen ala ez, miseria bat bazen ere. Zertarako. Ez zidan inork ezer galdetu aldiz, ez ateratzean ez ondoren.

LO

Orain pozik hagoela ematen du. Gu ere bai, eskuzabala izan haizelako, eta hire tenplua gizateriaren garapenerako eman duk, zientziak aurrera egin dezan, medikuntzako ikasle multzo batek anatomia ikas dezan besterik ez bada ere.

Urdinean flotatzen ahuspez, nola nahi huen? Hortzaz gora? Hortzaz gora ziur, eta bakarrik tangan, eta argi zuri itzel batekin gainean. Beno, jarri dizuetena ez dago gaizki.

Ez dela hau Jainkoen Ilunabarra, eta eguzki hotzik ez. Zerbait hobeagoa edo zerbait txarragoa da. Begiak hertsu ezinik eta besoak zabaldu ezinik. Ahuspez, likidoa irentsi ezinik, ito egin ezinik ere.

Kontainer batean hire atzetik Erretereriara iritsi zen hire zientzia-fikziozko hirurogei eta hirurogeita hamarreko hamarkadetako eleberrietako bildumako saltsa berberean hagoela esan daiteke, dagoeneko berrirakur ezin hituenerako zurera iritsi zirenak.

Zertaz gogoratzen haiz orain gehiago, San Frantziskoz edo hire gaztaroko herriaz? Edo, hobeto esanda, gogoratzen al duk zenbat denbora eman huen San Frantziskon hire garaiko herriaz oroitzen? Faltan botatzen? Nostalgian galdurik?

Hamabost urteko neskak beso zurietan xiringekin zintzilik, atarietako harmailetako ilunpean, TechnoLab Networks-en sarreran atzera begiratzen zenuenean, ateratzean, gauean. ETA eta presoen aldeko pintadak banden sprayko marketan LAko auzo zabaletan. Manifestazioak hondartzako paseoan jendetza biltzen zen bakoitzean, arratsean. Autobus erre baten usaina trafikoa gelditzen zen bakoitzean.

Bakailaoen trontzo zurietako usain hordigarrien gabezia zipretarren deli-an.

Itzulian ez zetorren bakarra orduko telebistako albistegietako langabezia igotze datuetako berriak ziren, ehuneko telediarioak Statetako plastikozko *broadcast news*-n gogoratzeko modurik ez zegoelako, gogoan lotzerik ez.

Parrokiako porlanezko horma grisaren aldameneko kala aratzak bilera aretoko metakrilatoaren gaineko arrosa sorta beroan, neguko goizetako argi itzalia edozein zeru estalitako ordutan, merenderoko txibi frijitueta zaporea eta sagardoko gustu fresko garratza edalontzi bateko urezko arrastoan mahaian, erretaularen leinurua botiletako paramentuan Harvey's-en, anbulatorioko beirazko blokeetako eguerdi geldia edozein leiho ezberdinean...

Aitaren begirada postariaren begi urdinetan.

Orain hemen hago azkenik, helduta, bilduta, batu eginda, giroan, sasoian, gozatuz, hemen eta han. Gaztea.

DELETE

Jakin izan banu horrelakoa zinela, denbora guztian horrenbeste eskatzen joan eta gero ez zeundela ezer emateko prest, zure aldetik ez zenuela ezer jarriko gauzak ondo joan zitezeten... Harreman batean bakar baten nahiak ezin du elkarbitza bideratu, eta zu ez zaude bestearen beharrei adi inoiz, jarrera kontua da, eta ez naiz kapritxoetaz ez detaileetaz ari, beharretaz baizik.

Oraintsu ezin dut sinetsi fede onez sartu zinela gure erlazioan. Delete.

Ez dakit zenbat aldiz saiatu naizen zurekin mintzatzen, lortu gabe, biok hasten ginelako oihuka berehala, ni ere bai, baina zuk ez zenuen inoiz entzun nahi, barrez hasten zinen ere gehienetan esaten nizunaz, kontatu nahi nizunaz, nola sentitzen nintzen azaltzen ahalegintzen nintzenean. Ez zen inoiz ueña. Une aproposa. Komunikazioa ezinezkoa suertatu da azken hil hauetan gure artean. Eta jadanik dena galduta zegoenean, apurtuta, hitz egin nahi zenuen? Delete.

Gure artekoa gure artean konpondu izan bagenu, beste inor sartu gabe, hobeto geundeke. Intimitatea da kontzeptua. Pentsa ezazu. Nik ez dizut ezer esango, esan nezakeen guztia gaizki ulertuko zenukeelako eta maneiaturiko zenukeelako. Elkarrekin egotea erabaki genuenean geuk erabaki genuen ez da?, ala ez? Ateratzeko eskatu zenidanean zuk eskatu zenuen ez?, ala beste batek eskatzen zidan?, beste baten partez zentozen?

Nahi baduzu egun hauetako batean gera gintezke, etxean edo beste leku batean, jabaltasunez hitz egiteko. Arratsaldeko azkeneko orduan nahi baduzu. Zure erantzunaren zain.

Delete.

Ez dakit zergatik utzi egin zenion elkarrekin mintzatzeari, zergatik itxi egin zinen eta gauzak nirekin partekatzeari uko egiten hasi zinen. Elkar ezagutu genuenean, nire bizitzan sartu zinenean nirekin hitz egiten zenuen, edo hitz egiten zenuelakoa egiten zenuen, orain jada ez dakit.

Inguratzeko berriketa galanta zerizun, baina behin nahi zenuena lortu zenuela kito, ixten hasi zinen eta niri bizkarra ematen hasi ere. Nahigabe egin duzula pentsatu nahi dut, zeren eta nahita egin baduzu egin duzuna izenik ez duen.

Ez dakit zergatik hasi zinen isiltzen, eta elkarrekin ematen genituen tartetean zergatik ematen genituen isilpean. Zu oro eroso zenirudien, baina niretzat egoera larriak ziren, jasanezinak.

Ez dakit zenbateraino kontziente zaren harremanetik gehien espero duena gehiago sufritzen duela denentz. Zeren eta bai, itxaropenak banituen, baina zuk eragindakoak, zuk eman zenizkidan.

Aurrera begiratu nahi dut halere, zerotik hasi. Zurekin edo zu gabe. Beste aukera bat eman izan ezkeru gureari esan, baina egia baldin bada bakarrik faborez. Hemendik aurrera gezur gehiagorik ez, elkarri atzea emate gehiagorik ez. Delete.

Gauza pare bat etxean dauzkazu jasotzeko. Nahi baduzu beheko tabernan edo joskintza dendan utziko dizkizut poltsa batean. Etxean jaso bestela, baina aldez aurretik abisatu ireki behar dizut eta.

Delete.

Zerbait egiteko asmoa duzu asteburu honetan?

Delete.

ILARGIAREN EZPALAK

Lehenago esan izan banian ere ez huke sinetsi izango, zergatia ez hukeelako ulertu izango. Dena dela nik ere ezin nian esan.

Ez huke ezta hasiera ulertu izango ere, nik neuk ezin izan baitut konprenitu atzo arte. Ez zen ezer. Egun bat, une bat, hamazazpi urteko segundo bat.

Bederatzi urte izango nituen, gehiago ez, eta ehunka izan nituen arratsalde luze haietako bat besterik ez zen. Denoi oparitzen zizkiguten negu horietako bat.

Nik eskolatik ihes egin izan nuen. Ez dakit oraindik nola izan nintekeen horrelako gauza bat egiteko gai orduan, ni oso neskato zintzoa nintzelako, oso erlijiosoa, lotsatia oso. Beti jolasten nengoen nire kasa, baina egin behar nuena egiten nuen.

Eta egin nuen. Liburuak, koadernoak eta arkatzak jaso eta inor konturatu gabe eskailerak jaitsi eta etxerako bidea hartu nuen, bakar-bakarrik. Arrazoiren batengatik, ez zen inor kaleetan. Nire auzoan garai hartan ez zen inoiz jende askorik kanpoan, eta gutxiago ere astegunetan, baina hala eta guztiz ere bitxia suertatu zitzaidan lagunik ez ikustea balkoietan, atarietan ez eta lorategietan ere.

Etxeko burdin hesira iritsi nintzenean sukaldeko leihoko argia piztuta zegoen. Eguna izan arren ez ninduen larritu ez baitzegoen argi natural askorik, eta eskailerak igo nituen. Oso ondo gogoratzen naiz. Sarreran, berriz, atea zabalik zegoen. Ez zegoen alderik alde zabalik, gutxi falta zen ixteko, baina zabalik zegoen.

Paralizatuta gelditu nintzen hainbat unez, baina azkenean atea bultzatu nuen astiro. Bainugelako atea itxita ikus nezakeen korridore hutsaren azken puntan. Zarata egin gabe sartu nintzen eta soinu labur batzuk entzun nituen nire gurasoen logelaren ondoan. Sartu nintzen.

Bat batean nire aita, ohearen alboan zutik zegoena, ikusi egin ninduen eta niri begira geratu zen, izututa, ezer esateko gauza izan gabe. Ama, bizkarra ematen zidala, bueltatu zen, eta begirada geldo bera zuzendu zidan, ezagutuko ez banindu bezala. Biratzean maleta bat ohearen gainean zegoela ikusi nuen, irekita eta deseginda.

Irten eta nire gelara abiatu nintzen. Gutxira nire ama ate joka agertu zen. Hizketan hasi zen ezer gertatu ez balitz bezala, eskolaz galdezka, ea zergatik etorria nintzen egun hartan hain goiz, ea gaixo nengoen, eta abar. Alde egin zuen.

Afarian dena betiko erara egiteari ekin zion.

Zer ziren. Zertan zeuden sartuta. Zer zen horren sekretua edo horren ikaragarria ezen ezin zioten ezta beren alaba berari esan ere. Edo niregatik al zen. Niregatik al zen. Niregatik eta beharbada beste batzuegatik ere, agian, bai, baina beraiei zegokienez niregatik. Niregatik.

Nire benetako gurasoak al ziren orduan? Ala ez?

Zalantzarik gabe paper bat antzezten zuten nire aurrean eguneroko bizitzan, nire benetako gurasoena, baina harrapatu egin izan nituen. Kasualitate hutsaz, ordura arte ez bainintzen ezertaz konturatu izan, baina ustekabeen harrapatu egin nituen eta hori zen inporta zena.

Beraiek al ziren asunto hartan sartuta zeuden bakarrak? Auzokoez susmatzen hasi nintzen, eskolako andereñoen, bai eta nire adineko lagunez ere. Ba al zeuden denak pertsonai batzuk antzezten nirekin zeudenean, beren egi hura ezkutatzeko. Auskalo. Izugarria izan behar zuen edonola ere horrenbeste jende hor sartuta egoteko, ordu pila bat behar zuena nire aurrean itxura egiteko.

Nola edo hala, gau hartan, maindireen azpian, nirea zen bakarra ematen zuen iluntasun isil hartan, zera erabaki nuen, ordutik aurrera niregan soilik pentsatuko nuela. Egun hura iritsi arte beti besteez kezkatzen ibilia nintzelako, baina orduan defendatzeko prestatzen hasi behar lehenbailehen.

Nik ere nire papera jarraituko nuen egiten, bai, ezer gertatu ez balitz bezala, baina iraun bitartean prestatuko nintzen.

Hasiera batean egiten eta esaten nuena neurtu ezinik nenbilen, eta denbora dezente galtzen nuen egindakoa aztertuz. Baina asteak pasa ahala trebatzen nindoan ezer ez esatean, ezer ez egitean, ezer beraiek espero ez zutena, ezer ez beraiek espero zutenaz aparte.

Denboraren poderioz itxura egitea ohitura bilakatu zen, nintzena eta egiten nuenaren arteko marra garbi bat trazatu zelarik. Nolabaiteko itun bat zen, edo hori antzematen zitzaidan niri behintzat, ez nuelako urte guzti haietan ezer aurkitu, baina beraiek ere ez ziren nirean sartu.

Ahaztu izan zutela pentsatzera heldu nintzen, edo nik arratsalde hartan gertatukoari garrantzi handirik ez niola eman ondorioztatu zutela, edo niri ahaztu egingo zitzaidala.

Horrela igarotzen zen bizitza ezer berririk gertatu gabe.

Baina egun batean dagoeneko emakume nintzela ohetik jaiki nintzen, eta errespetatutako marra horri begiratzen hasi nintzen.

Nik tindatutako marratik at dena gezurra izan ei zen, eta ordurako nik banekien jadanik hori ez zela horrela. Urte guzti haietan beraiek ez ziren sartu izan, ez zidaten ni eraso egin izan, eta zenbait detailetxoz ni sumatzen hasita nengoen gainontzeko oro ez zutela haiek kontrolatzen.

Bidai bat egitea bururatu zitzaidan, jakin nahi nuelako edonon agertzen ziren herri, itsaso eta hiri guzti haiek egiazkoak ote ziren. Gerra guzti haiek, gosea eta oparotasuna benetan gertatzen ziren. Argindarra sortzeko atomoak ea benetan zatikatzen zituzten, hizkuntza zahar batetik eratorritako dialektoa egiazki hitz egiten genuen, gizona eta emakumearen arteko kopulatik benetan sortzen ginen.

Haien erreakzioa ikusi nahi nuen ere, ene gurasoena, ikusi nahi nuelako nola hartzen zuten nik beraiengandik urrundu nahi izana. Ez zutelako espero nik horrelako gauza bat planteatzea. Edo bai?

Gauza da baiezkoa eman zidatenean, naturalki gainera, ilusionatuta ere, hura beraien mehetasunaren zeinu bezala ulertu nuela, edota okerrago zerbaiten preludea bezala.

Nolanahi ere bidaia egitekoa nintzen, eta pazientzia handiz aurrezkitutako sosekin bidai bat erosi nuen. Egiptorako bidai bat zen, haien antzeppenaren atrezzoko gunerik handinahienean akatsak nabariagoak izango zirela imajinatzen nuelako nolabait, Egiptorik benetan baldin bazen noski.

Eta bertan zegoen. Zaratak eta sabeleko kimika hegazkinean, ekialdeko eguzkiaren uhar distiratsua itsasoaren mugagabetasunean, antzinako itzalak, urre-harri kiskaliak, egarria, nekea, hiri zikinak, izua, nirea eta beraiena, izerditzen ez duten masek arropetatik helduz, gorpurik gabeko hilobiak, geldotasuna, nagia, gauaren hutsa patioetan.

Behin dunetako gailurretara igo nintzen eta bestaldean basamortua ere bertan zegoen, egiantza galanta, eta erortzeko zorian egon nintzen izpiek jota.

Eguzkiak bere mihi zuria pasatzen zuen alferrik gizonen eta jainkoen bisai ilunetatik, eta hori beste erloju bat zen.

Itzuli nintzenerako, ez dakit, zerbait aldatu izan zen. Baina ez erabat oraindik, eta asteen poderioz aurrekora itzultzen joan nintzen.

Espero zuten zerbait egin nuelako susmoa nerabilen oraindik, egia zela Egipto han zegoela, bai, eta basamortua eta itzalak ere, baina baita ere beraiak aldeztatik bazekitelako guzti hori benetakoa zela, eta ni joatean egia zenentz ohartu behar nintzela.

Orduan, erreazioz, debekatuarena hasi zitzaidan gogoan biraka. Zeren urratze batez, hauste batez, sekula saiatu ez nintzena, oin bat beste aldean ipintzea lor nezakeen agian, ikus zezaten dena bukatuta zegoela, itunaren denbora pasatua zela.

Haiek arau batzuk jarrita zeuzkaten, eta nik beraienak benetan ote ziren ikusi nahi nuen, edo beste batenak.

Abuztuko astearte batean, hiria turistez gainezka zegoela eta trafikoa kolapsatuta, bular orotan hezetasuna eragiten zuen sargoritik supermerkatu bateko hotzetara sartu nintzen. Apalategietatik buelta pare bat eman, gehienak probatu ondoren perfume flaskorik garesti eta sofistikatuenak aukeratu, inor begira zegoen aseguru gabe prakan sartu, eta irteerara abiatu nintzen.

Kutxen ondoko errenka luzeak ikusirik, aurrera egin nuen bultzaka eta azkar, begirada atean tinko jarrita neukala, eta eguzkira atera nintzen berriro. Harrituta gelditu izan zirela iruditu zitzaidan,

larrialdiaren batengatik edota autoa bigarren lerroan aparkatuta utzi izan nuelako irtengo nintzela korrika pentsatuz beharbada. Ni oso poliki aldentzen hasi nintzen, haiek itxoiteko moduan.

Baina izkinara heldu orduko atzera begiratu nuen eta ez zegoen inor.

Ez zidaten eraso egin izan, baina ustekabeen harrapatu izan nituen agian.

Hiri dagokianez, ezagutu hindudanean ez dakit zehazki zergatik baina zuen, tira, beraien erantzun bat iruditu zitzaidan lapurretako asunto haren aurrean. Liburutegiaren mahaian irribarre tentel harekin hurbildu hintzaidanean, ez ezak barre egin, irribarre tentel harekin, zerbait miaztera bidali izan hindutela susmatu nuen. Ez hasiera batean, baina alde egin huen osteko unean pentsatzen gelditu nintzenean bai.

Nik hire hurbiltzea onartu nuen, zuek ere marraraino zentoztela suposatzen zuelakoan, hitz egitera edo bestelako zerbaitera, ez nekien. Kafetegietan, arkupetan, diskoteketako fokupeetan, pasealekuetan, arakutzen hindudan, aurpegia begiratzen nian, begiak, keinuak, eta sinetsi bai hainbat gauza bitxi aurkitzen nituela.

Baina ni zain nengoen. Jolasarekin jarraitzea erabaki nuen: berriketa hutsala, eskuak zeharka zineman, bainuak hondartzan...

Eta oharkabeen egunak joan ahala dena ohikeria bilakatzen joan zen. Eta ni beste marra bat marrazten zihoala ikusi nuen, konturatu gabe ere, gure artekoa, hi eta nire artekoa. Beste itun bat hirea eta nirea. Eta nik ez nuen beste marrarik nahi, ez beste itunik, itun zaharra hautsi nahi bainuen, onerako edo txarrerako, egiazki zer ari zen gertatzen jakiteko, zer zegoen hau guztiaren atzetik, sekretua zein zen alegia.

Horregatik bururatu zitzaidan kanposantuarena. Joatearena esan nianean hire egonezina suma nezakeen, pentsatuta ez heukan zerbait zetorrela. Halere, harresiaren gainetik jauzi egin genuenean adoreaen plantak egin hituen, eta horrek zalantza itzal bat sartu zidan.

Hilobien artetik barneratzen ginen ahala alkandoraren botoiak askatzen hasi nintzen, aurreratzen hik ikusi ez hezan, une hartan otu zitzaidalako soilik. Aldez aurretik zera neukan planeatuta. gelditzea eta nire aurpegia ilargitan jartzea, begiak hertsirik, ea zer egiten huen. Baina eramaten

hindudala ikusteak kemena eman zidan, eta bularretakoa kendu eta hilarrian etzan nintzenerako edozein gauzarako prest nengoen.

Horregatik minduta geratu hintzanean ni izarrei so biratu egin nintzen, eta nire haragiari heldu hionean hain lotsa gordinez gertatu behar zena gertatuko zela jakin nuen, eta artean entzuten ari nintzen airea irensten ikusi hindudanean, orduan, dena gezurra denentz ohartu nintzen.

Ez beraiena, nirea.

Loa kendu izan zidana urte luze haietan, denengandik banandu egin ninduena, neure baitan erbestaldi luze bat pairatzeko behartu izan ninduena. Nire indar ia osoa defendatzen gastatu izan nuen, gastatu dut, eta dena gezur huts batengatik.

Ez gainera norbaitek asmatutako gezur batengatik, nik neuk nire buruari kontatutako eta sartutako gezur batengatik baizik. Neure listu propioan pozoituta eta itota.

Eta gero zer?, zer? Zer zetorren gero? Familiakoei barkamenak eskatzea?, lagunei?, mundu guztiari? Ez ba. Gero ez zetorren ezer. Ez zegoen ezer. Ezer ez.

Zer egin behar nuen orduan? Normaltasunera itzuli? Denekin bat egin eta... denen artean gurditik tiratu? Neurea egin?

Ez zen ezer geratzen, hark bakarrik baitzeukan zentzua.

Horrela amaitzea erabaki nuen.

Eta hortik datoz kendu ditudan zetak, xanpain frantsesa badiaren gaineko hotel xarmangarri honetan. Hortik ostrak, izokina. Sauternes izoztua. Kabiarra. Itsas trikuen hesteak hire jertsean. Hor zeuden nire aurrezki guztiak. Hire ezpainetan azukre hautsaz eta kafez zikinak.

Aire honetan. Gure oinetara dauden ozeanoko uretan islatzen diren hiriko argi guztietan. Pauso bakoitzean atzetik dugun eta aurkitzen gaituen itsasargian dagoen begian. Gau honetan inoiz amaitzera ez zihoana.

Musika alai samarra da, bai, eta hi isilik hago, baina ez da horregatik. Ez dakialako zer egiteko zorian egon naizen.

Piztu ezak argia orain, nahi baduk. Bihar gauza bera izango da eta.

FERRY

Bosgarren aldiz txanponjaleetako gelako moketan sartzen nintzen. Ingeles agure pare bat bertan zegoen dirua galtzen, eta beste bat banan banan makinaren aurrean kokatzen zena, marrazki eta argitxoak arretaz begiratzuz zerbait irakurriko balu bezala. Atzera bueltatu eta areto handi gardenean lehengo lagunarte ingelesek han jarraitzen zuten eserita, berriketan, edaten eta erretzen. Ni nintzen itsasoari begira egona zen bakarra.

Nire lagunartea barran gelditu zen, edaten ere, garagardo ezberdinak dastatzen. “Hau lager da, lager deitzen zaio. Ura bezain arina da, ur hutsa. Hau bezalakorik ez dago Eibarren”. Dirua bukatu izan zitzaidan eta ez nienez esan nahi, ezta aprobetxategi ez bizkarroi bat bezala gelditu ere, ospa egin nuen.

Bizkarrera ateratzea erabaki nuen, eta hogeita hamar perfume iragarkiak berriro jan ondoren metalezko ate astun horietako bat ireki nuen eta aire libreria irten. Jende soinu beteta zegoen dena. Atzeko zabalgunera abiatu, hamaken eta plastikozko besaulkien aldera, eta talde batzuk agurtu ondoren eskudelaren kontra jarrita eseri nintzen. Talde horietako batean ohiko txorrada trukatzear neska bat begira gelditu izan zitzaidala iruditu zitzaidan, baina oso azkar izan zen, eta dena dela bera bat zen bakarrik, eta ezin nintzen beraien artera sartu besterik gabe. Edo beharbada maite ninduen, nork daki. Dena dela hobeto nengoen hemen, bakarrik ere, bera bezala.

Mundu guztia korruetan zen. Batean musika entzuten zeuden, Portsmouthen erositako zintak. Ez dakit zergatik, han garestiagoak zirelako, eta gurasoek emandako dirua horrela gastatzea ere... Beste batean ogitartekoak eta sakotontziak ateratzen ari ziren. Hango familiek gauza franko eman zietela zirudien, gauza berri anitz zeukatelako eskuetan. Edo agian beraiek erosiak ziren.

Niri betikoa eman izan zidaten nire etxeok, goizero ematen zidatena klasera joatean, Yorkeko urdaiazpiko eta luzokerreko sandwicha, gurinaz igurtzita betiko moduan, patata frijitu poltsa txikia, txokolatina eta Coca-Cola lata. Zerbait egitearren motxilatik patatak atera nituen, begiratzen nindutelako. Walk-man-a atera nuen ere bai eta Iron Maiden-en The Number of the Beast zinta ipini, han erositakoa, baina nire kasuan uda osoa musikarik gabe pasatzera zigortu

egin nindutelako etxean. Eguzkitan begiak hertsu, patatak jaten hasi, eta musikaz gozatzera laga nintzen.

Hala eta guztiz ere noizean behin deseroso sentitzen nintzen, estututa ere, denek begiratuta. Zelako oporrak. Noten errietatik aste batera aitak zera esan zidan, Ingalaterran bi aste pasatzen utziko ninduela abuztu osoan klase partikularrak seriotan hartzen ematen banuen irailean matematikako putalabaren azterketa gainditzeko.

Nola “utziko” ninduela, nik ez nuen joan nahi, etxetik bolada batez desagertzeagatik bakarrik. Behartzen ninduen.

Motorrek goitika zuri bat botatzen zuten itsasoko ur ilunetan, nire itsasoa ez zen horretan, nire hondartzetakoa. Edo bai? Esaterik ez zegoen. Ez zegoen ezer inondik. Nora ezean gindoazelako ilusioa eragiten zuen.

Bazkaldu ondoren, biaoan, zinema aretotik alde egin behar izan nuen filma bat jartzen zutelako eta sarrera kobratzen zuten, baina airea freskatzen zuenez eta tarte bat neramanez jende horrekin, hara joatea erabaki nuen eta bide batez bira bat egitea ontzitik berriro ere.

Kamainen gunera ez nintzen sartzen ausartu, eta besaulki batean eseri nintzenerako argi fluoreszente hark ez zuen lo egiten uzten. Paretetako zura zinema kartekez zegoen apainduta; aldamenean neukanean, “Bihotz berdea” edo horrelako zerbait, bi nerabe ilehori agertzen zen Amazonaseko oihanean, bisai osoa margotuta zeukatelarik indioen gisara. Filma espainiar bateko kartela bazegoen ere jarrita.

Ingalaterran ez zitzaidan iruditu zinemarik zegoelarik, ezta antzerki edota zirkorik ere. Hiriaren erdian bai bazeudela kioskoak eta banketxeak, pisuetako eraikuntza garaiak eta tabernak ere, baina bestela bazirudien jendea auzo triste haietan bizitza ematen zuela, etxe adosatuetako lerro haietan, kale huts eta heze haietan, parke handi eta hil eder haietan.

Edo ez parkeetan ere, ez parke baten txoko edo bazter batean ere, ezta kalean ere, atzeko baila txiki batean baizik, zeruko zatitxo batean, backyard zergatik, zergatik yarda bat, zer zabalera egon liteke han. Han bizi izandakoa nintzen ni ere bai, etxe horietako batean. Leihotako mundu bat.

Baina bat ezin zen usteldu itsasoa zegoen toki batean, badia batean, hori baitzen Ingalaterrako argia. Hori, eta zahartasuna era guztietan, etxeetan eta gorputzetan ere sartuta. Eta pubak, nola ez, horrelako tabernak bai ez zegoelarik Euskal Herrian. Beti beteak, inor izan ez arren, beren garbitasun fazatiarekin, eta beren hurkotasun betizuairekin, beren garagardo argitsuarekin, beren irudi faltsuekin. Batzuek zera kontatuko liekete familia eta lagunei, han izan zirela denbora guztian, pubean, dardoetan eta kartetan jolasten, pintarik pinta mozkortuz, eta neska pila bat ezagutzen. Ez zen nire kasua.

Ez nuen inoiz horrelako bakardade bat sentitu izan hara joan arte, ezta mendietara igotzen nintzenean ere. Zenbaitetan bakarti sentitzen nintzen, noski, baina ez zen hori, ez zen halako bakardade bat. Han logelan nengoenean arratsaldez, leihotik begira, ez neukan ezer inondik. Bertako familiakoak behean ziren, egongelan edo sukaldean, eta ni han goian, ohean eserita, edo aulkian, zeharo galduta.

Nire ustez atzerriratzen zarenean lagun batekin edo zure familiako batekin egin behar duzu, bestela dena etxean lagatzen duzulako eta ez zara ezertaz ohartzen. Beharbada, zorte onez edo zorte txarrez bidaian ezagun bat edo pare bat egiten duzu, baina bera ez da zu, ez da zurea, ezta zu berea, eta zuk ez dakarzu eta berak ez zaitu eramaten, eta hori ez da ezer.

Nik ezagunak egin nituen Ingalaterran, bidaiakoak jakina, baina ez ziren benetan nire lagunak. Egun batean jarleku batean topatu nituen, akademian, eta McDonald's-era zihoazela hanburgesa bat jatera, oso maiz egiten genuena hango janaria kaskarra zelako eta gutxi ematen ziguten gainera, berekoiak baitziren hango familiak, eta ea beraiekin joan nintekeen galdetu nien, eta baietz, haietako batek urtebetetzea ospatzen zuela, eta nik zoriondu nuen eta guzti. Hanburgesategian aldiz urtebetetzearenak aparte bat egin zidan, ez dakit nola gainera, eta nik nirea ordaintzeko eskatu zidan, berak gainontzekoenarekin nahikoa zuela. Eta nik baietz.

Orduan ez nekien ontzian non ziren, ezta jakin nahi ere.

Tipo uniformatu bat agertu zen hamarretan beste proiektio bat zegoela esanez, eta alde egiteko. Afaltzeko ordua pasatu zela ez nintzen jabetu ere egin, baina sandwicha eskuan zira jantzi eta kanpora abiatu nintzen Coca Cola edatera, pasabide eta tranpaletan topatzen nituen taldeak jadanik lekua aurkituta zeuden lo egiteko prestatzen zirelarik, batzuk ahopeka mintzatuz ere.

Bizkarrera atera nintzenean gozatzeko moduko haize bat zebilen. Ilargiak piztu izan zuen ontziaren uhara, askatasuna borborka zeriola, eta orain beste alderako bide magikotzat agertzen zena. Ondo ikusten ez ziren arren, uhinen mokotxoan masak, argiz pintzelatuak, gure abiadura xedatzen zuten.

Arasa batean zenbait kikara eta platertxo zeuden ahaztuta. Itsasora jauzi eginez gero zenbat orduz iraun nezakeen, ordu batera iristeko gauza banintz jakina. Kikara bat hartu eta pentsatu gabe itsasora bota nuen, eta han nonbait makula zuria desagertu zen. Begiratu nuen une haietan ea flotatzen ikusten nuen, baina ez, desagertu zen erabat. Ur beltzek irentsi zuten.

Kremailera jaso, eskuak sakeletan sartu eta plastikozko besaulki haietako bat hartu nuen esertzeko. Justu alboan tanke bat zegoen zintzilik. Emendioez hornituta zegoela suposatzen nuen, horrela zelako etxean irakurritako itsasoan bizirik gelditutakoen istorioetan. Galdera zera zen, tankea uretara nola jaitsi ontzian inori ohartarazi gabe.

Zeren eta lortzen banuen aste batean gehienez kostaldera iritsiko bainintzateke, Frantzian edo Ingalaterran, edo nork daki non, edo hori baino lehen beste ontzi batek jasoko ninduke. Azkenean etxeko atean jarriko nindukete era batera edo bestera, ez dudalako uste ontzi batean gelditzeko hartuko nindutenik, edo inon kontratatuko nindutenik bakarrik bizitzeko hamabost urte izanik. Baina etxeko atean ere dena ezberdina litzateke aurrerantzean. Eta dena dela abentura itzela litzateke. Itzuliko nintzenerako azterketa madarikatuaren data pasatuta egongo litzateke agian, eta zorte pixka baten F.P.-n matrikulatzen utziko nindukete.

Tankean olan laranja batek estalita zegoen, oso tenkatuta zegoena eta soka batekin lotuta.

Gauza horietan ez dakit nola eta ez dakit zer ordutan loakartu nintzen, eta han eman nuen gau osoa, han izarpean. Iratzarri nintzenerako zer egiterik ez zegoen: klartasun bat zegoen hodeiertzean, baina lehenengo tipo bakartiak bizkarrean ziren, biraka, itsasoari eta niri begira, eta niri mukieria zeridan, eta mukizapirik eskura ez.

Askotan erlojua begiratzen nuen, baina aldatzen zen bakarra dena jendez eta argiz gaineztatzen zihoala zen. Guretako batzuk hurbiltzen zitzaizkidan esaldi jatorrak botaz, baina momentu batetik bestera bakarrik gelditzen nintzen berriro, denak lehorreratzeko beheko solairuan pilatu ginen arte. Une egokian nireak agertu ziren ere, txantxetan eta esamesaka, eta nik ere bai.

Portuan nire ama zegoen, eta nire aita, eta anai-arrebak. Ea ondo pasatu nuen, ea etxean ondo tratatu ninduten, ezagunak beren gurasoekin agur esanez alboan, ea horiek nire lagunak ziren, ea ondo jan izan nuen, nire aitak haietako baten aita Bilbotik ezagutzen zuela.

Eta nik baietz, baietz, baietz...

KANPOSANTUA

Urria. Hiria laurogeietako udazken horietako batean hozmindua, triste. Haietako baten aldiriko auzoan bildu zarete larunbat goiz argitsu batean zer edozer egiteko. Institutuaz mintzatzen zarete, irakasle berriez, ikastera behartuko zaituzteten hizkuntza hil berri hartaz, nardagarriak ematen duten liburuez.

Ezer esan gabe eta ia konturatu gabe ere hilerrian sartzen zarete, eta hilobien ondotik pasatzen zaudetela bertakoak hilerriko kontuak edesten hasten da, aldez aurretik entzunda daukazu berandu etxera itzuli zeneko istorio hura. Bera eta bere anaia bazterreko errepidetik buelta eman beharrean gaueko aho hertsian hilerria zuzenean zeharkatzea erabaki zutela, eta harresitik jauzi egin.

Panteoietako etorbide nagusi osoa ibili eta, beste muturreko atera iristean zaindariaren oihuak ustekabeen harrapatu zituela, astamakila eskuan zeramala, eta beraiek izututa ahal zuten bezala atetik gora egin eta libratu zirela txiripaz, baina mailatuta.

Batek zera proposatzen du, beheko zokoko esparrura hurbildu eta horko langileari burezur bat eska dakiokela, Zientzia Naturaletako lan bat egiteko delako aitzakiarekin irakasleak esan duelako. Eta baietz, izango duela, bertakoak ziurtatzen du, hilerrian ez baitago erraustegiarik baina hamar urte pasa ondoren pobreen hobiak irekitzen dutela lekua egiteko, eta gorpuak esparru hartan metatzen dituztela gainontzeko hondakinekin eta zimeldutako lore-sorta eta koroekin.

Barrez bilatzen duzue eta, topatzen duzuenean, galdera egin eta jakina tipoak ezezkoa ematen dizuela, begietara zuzen begiratu. Akabo txantxa.

Eta goiza beste konturen batean eman ondoren, bakoitza bere etxea doa bazkaltzera, baina gertakaria gogoan darabilzue denei noizbehinka zenbait astetan.

Martxoa. Hiria esnatuta eta edozein zarata edo dabilen haizeari adi, fresko. Arratsaldean elkarrekin egon ondoren gaueko bederatzi eta erdian harresiaren ondoan geratuta zaudete, pasealekuko bazterrean non barneko patio bat daukan baserri zaharra dagoen.

Laguna datorrenean, datorren bakarra, erraz pasatzen zarete beste aldera eta eskerrak ilgoraren argiak legarra eta hosto eta granitoaren bizkarrak bainatzen dituela, bestela ez bailegoke gune koskatsu horretatik mugitzerik. Gazteak zarete baina giroa hunkigarria da.

Zuhaitzen adarrak geldi geldi daude, eta altzifreak eta muluak isilik. Ezin aurrera egin atzera begiratu gabe. Eta hortik, hilarrien argazki txikietatik hildakoen begiek behatzen zaituztete.

Baina ezin duzue elkarrekin gaizki geratu, eta adar-jotze tentelak esanez erraustegiaren harresiaren ondoraino iristen zarete. Gertu samar paletetako zenbait ohol topatzen dituzue eta, bata bestearen gainean ahokatu ondoren goratzen lortzen duzue.

Han goitik barruan tontor ilun bat besterik ez da ikusten. Haraindiko auzoa bere argi guztiekin ikusten da, eta Matigotxotegiko zelaia biziki piztua futbolearen jolasten ari direla oso ondo ikusten, baina hor behean nekez bereizten da ezer.

Jauzi egin eta gai bigun batean erortzen zarete, oinak hondoratu zaizkizue. Kontuz ateratzerakoan koroa arinak eta adakera lehorra altxatzen dituzue. Landare hondakinetako meta bat da, lore sorta zimel ehunka, hilerriaren zaintzearen hondarrak, egurrak eta... gorpuak, bai gorpuak. Juxtu azpian gizon baten gorpua datza ahoz behera, panazko jaka batekin.

Astiro hurbildu zatzaizkio eta hurrendik aztertu, baita han dagoen pala batekin ukitu ere. Baina bururik ez dauka. Ausardia erakusteko sorbalda kolpatzen diozue, eta besoak aldentzen.

Bat batean txoko batean burua nabaritzen duzue, burezurra hobeto esanda, burezur bat behintzat, auskalo berea den, hori ematen du bederen. Ez dauka haragirik ezta ilerik ere, burezur hutsa da, betzulo eta sudurzuloarekin.

Barailarik ez dauka, eta ilargiak goiko hortzerian distiratzen du, metalez egina baitago. Zubi bat edo antzeko zerbait egina dauka. Burezurra kontuz kulunkatzen duzue eskuetan, eta argi urrian kontu handiz miatzen. Besteak zilarra dela dio, eta zuk ezetz, zilarra balitz ehortzi baino lehen kendu egingo ziotela. Baina bestea tematu egiten da, horrelako gauzak ez dizkietela kentzen gorpuei lurperatzean, balitekeela hileta – zerbitzuko edota hilerriko langileek lapurtzea, baino bestela ez diola inork kentzen gorpu bati hortzak, ezta urrezkoak badira ere.

Eta bide horretatik zerara iristen zarete, kendu eta saltzea ote daukazuen, eta zenbat aterako zenuketen, eta gauza horiek benetan saltzen ote diren, eta saltzea saiatzekotan nori zuzendu, eta abar. Azkenean gehiago hitz egin gabe burezurra hartu eta ekarri duzuen motxilan sartzen duzue. Beste aldera jauzi egin eta, itzultzeko hilerria alde batetik bestera zeharkatu ondoren, kanpoko mundura eta farolen argi elektrikoko bizitzara ateratzen zarete.

Bizitzarako itzulera suspergarria da, ohiko gauzak ikustea, errepidearen asfaltoa, espaloi zuriaren baldosen marrazketa, paperontzia, trafiko seinalea.

Besteak motorra hartu eta motxila pasatzen dizu, eta zuk ondo jarri eta bere atzean esertzen zara. Eta horrela abiatzen zarete kaletik. Kasualitatez poliziek gelditzen baldin bazaituzte, eta poltsaren barruan daramazuena erakusteko esango balizuite, pentsa zelako erreakzioa izango luketen.

Baina erreparatu gabe Grosetik Uliara igotzen diren eskaileretara joatea erabakitzen duzue, ondo ezagutzen baitituzue inguru haiek Institutuaren atzean daudelako, eta txikarra egiten duzuenean handik zabiltzatelako. Abiadura hartu eta semaforoetan gelditzen zaretan arren, hara hurbiltzen zarete azkar samar.

Eskaileretan ez dago inor ordu horretan, eta faroletako tonu horiaz gaizki argizatuta daude. Motorrari hanka atera eta mailetan esertzen zarete. Motxila kendu, hartu dituzuen arriskuez elkarri adarra jo, eta motxilatik burezurra ateratzen duzue, poltsan. Eta zera galdetzen diozu, orain zer egingo duzuen horrekin.

MUTIKOA

Autobuseko eserlekuetan jesarri ginenetik, Madrilen, bata besteari begira isilpean koloniakoek ez genuelako elkar ezagutzen, deigarria gertatu zen bera dagoeneko bere irekitasun eta umore onarekin. Izotza urtzeko eta harremana hasteko monitoreak azalpenak ematen hasi zitzaigunean esan zituen gauza pare batengatik (zerbait esan zuen bakarria izan zen) zuri bat zela pentsatu nuen hasiera batean, baina gero nagusiak zera esan zigun, zeruari begiratzeko leihoetatik eta sai beltz bat bilatzeko, eta bat ikusiko zuenari coca-cola bat ordainduko ziola errepideko tabernan geldituko ginenean atsedena egiteko.

Ez sai erre bat, horietatik dezente gelditzen zirelako, ez, sai beltz bat, galzorian zeudelako eta oso gutxitan ikusten zirelako.

Eta berak berba egiteari utzi zion, eta zeruari begira gelditu zen tarte luze batez, aho zabalik, arakatur. Eta aldi bate pasa ondoren batek galdetu zionean ea zerbait ikusten zuen, berak ezetz erantzun zuen, irribarre batez ezpainenetan.

Kanpamenduan ez zitzaidan tokatu bere kanpadendan lo egitea, baina eguneko jardueretan ezin nion begia jarri ekidin, beti gogoz parte hartzen zegoela antolatzen zen edozein jolas edo ariketan, eta leku batetik bestera gindoazenean bera beti abesten edo txistu eginez zihoan, edo zeraman txilibista txiki bat joz, beti alai. Edo goian sai bat hegal egiten ikusten genuenean bere karrankak ozenki antzeratuz, ea hegaztiak erantzuten edo jaramonik egiten zion behintzat.

Elkarren arteko konfiantza irabazi ahala taldetxoak eta lagunarteak osatu zirenean bera kanpoan gelditu zen, jakina, eta neskekin ibiltzen zen, eta horrekin lehenengo txantxak eta adar jotzeak etorri ziren. Eta gehienek iseka egiten zioten, nerabeek beti egiten duten moduan. *Zergatik zaude pozik? Zergatik jotzen duzu flauta madarikatu hori? Tontoa zara ala?*

Gauza da eskolako gazteek baloratzen dituzten gauza tenteletan ondo samar moldatzen zela bera, aise aritzen zen futboleak, ez zuen beldurrik erakusten sakandik rappela egiten genuenean, eta ibaian bainatzen ginela ausarta zen baita jauzietan eta igeriketean ere. Baina zerbait bazeukan bestea egiten zuena.

Zoriontsu naizelako abestu egiten dut! zioen berak, eta samin edota kezka arrastorik ez, edo adierazterik ez behintzat. Bere amari eztia erosiko ziola azalduz. Zeruari begira uneoro saien bila.

Zertan ibiliko den orain galdetzen diot neure buruari.

ERLOJUA

Lanpostu honetan hasi nintzenean ez ninduten hemen kokatu, bulego berrietan baizik, ingurune askoz ere funtzionalago batean, hiriko zabalpenean, eta ordurako aita jadanik jubilatuta zegoenez ez zidan etortzean beste munduko zirrararik eragin. Pentsatzera jarrita bai eragiten zizula halako zarrasta bitxi bat, baina bestela egunez eguneko terrentan maila anekdotikoan gelditzen zen sentipen hura, eraikuntza zaharrera, hiri erdira ekarri ninduten arte.

Hemen, kutzak husten eta kajoiak betetzen nengoela, etenalditxo bat egin eta *patio de operaciones*-era atera nintzenean hantxe ikusi nuen hegaletako erlojua, betikoa, ordukoa. Giro beran mende bat zeraman luxuzko gune hartan, denborazkanpoko, geldoa hein batean.

Eta gogora itzuli zitzaidan minutuen segida mantso hari nire praka motzetatik erreparatu nion lehen aldia, umetan, nire aitari bisitan gentozkion batean, berak oraingo nire adina izango zuenean eta bulego honetan lan egiten. Une hartako ez nintzen etxetik asko urrundu oraindik, egia esan, eskolara eta amarekin hiri erdira erosketak egitera hurbiltzen nintzenetan izan ezik.

Ni burbuila beran sartzen nintzen orain, ez nekien zenbat denborarako, edo arrainontzi beraren burbuila beran hobeto esanda. Eta pentsatzea ere honetara iristeko pasatu behar izan nituenak!

Bera hemen hotza edo euria ari zuen jakiterik ez zeukan arratsalde haietan ni atzeko etxarte grisetan kolpatzen eta makurrarazten ninduten bitartean. Berak lankideen tabakoaren kea saihesten zuen bitartean nik, ilea argiz erreta, irainak saihesten nituen entzungor eginez. Berak oraino ikusten ditudan paperak metatzen zituenean, bulegoko ohikerian, mahaien gainean, erlojuaren azpian, nik xiringak zapaltzen nituen alde zaharreko harmailetan, edo belaunak zauritzen igerileku eta mendiko bide eta bazterretan.

Berak bulego honetan bertan herriko tinta eta odola usaintzen zituen urteetan, ni Frantzia eta Ingalaterrako soroetako haizeak edaten nituen, azkenean aire hauxe bera arnasten amaitzeko bazen ere.

Zeren eta bai, hemen nago, eserita, betiko pareta ilunei begira, semearen zain, ni banoalako egun batetik bestera leunki gezurrezko bake honen eskutik baina bera... auskalo nondik ibiliko den, zerupean, patio eta izkinetan, eta nora joango den, eta norekin.

Gaur goizean sartu naizenerako erlojua kendu egin zuten, matxuratuta egongo zelako ziur aski, eta ez luke inork konpontzen jakingo dagoeneko. Bere lekuan berri bat ipini dute, berriak ez du zehazten asteko zein egun den baina.

AMODIOA

Ez dakizu ondo zenbateraino beharrezkoa zaizun iratzarrerako nagietan eguneko lehen arnasa bere usainean hartzea, eta betazalak bere argitara zabaltzea.

Bizirauteko. Bizitzarako behar den beste kemena izateko. Eta gauean, lanetik etxera itzultzean, afaldu eta telebista tarte batez ikusi ondoren, edo telebistari begira laneko edota kaleko iskanbilak buruan irakin ondoren, bere usaineko bakean aterpetzea maindire epel eta leunen barrena, eta bere hatsaldietako itsasaldien zurrumurruan sehaskatzea, eta ilunpetan bere bularra igotzen eta jaisten sumatzea.

Geldiuneetan bere eskuekin egindako janariak jatea, prestatzen ikusi, mantala jantzita, antzinako abestiak kantatzen edo xuxurlatzen dituen bitartean.

Musika bere altzoan entzun, sofan, edo filmak ikusi, komediak batez ere bere sabelaren astinaldiez kolpatua izateko barre egiten duenean.

Etetik ateratzen ez zareten egun luze eta gelbera horietan etxeko muinak bere biloan usaintzea, edo azkeneko orduetan kanpotik igotzen denean bere xerloetan euria eta haizea bilatzea. Gero, gorputzak dutxapean biluzik, elkarri estutzen eta musukatzen, bularrak, ipurmasailak eta sorbalda xaboituta pisatzea eta ferekatzea.

Edo, jaiegunetan, kandelen argietan bainatzea, hankak korapilatuta xanpaina edaten apar beroaren gainean, berriketan, kanpoan neguko ekaitzak gogortzen direnean.

Bere galtzarbeen izerdia ohartzea, ohazalaren gainean, lanegunaren buruan nekeak jota ohera erortzen denean. Bere eskuek lisatutako alkandorak eta aldagarriak, eta bestelako arropak berak atonduak janztea.

Elkarrekin jatea parkeetan eta atarietan, kanposantu eta merkataritza-zentroetan, geltoki eta hondartzetan, despatxuetan, kotxean eta tabernetan.

Berarekin etengabean berba egitea, eta proiektuez ari zaretenean bere begien distira nabarmentzea, irribarre bat ezpainetan margotzen zaionean aurpegiko azalean markatzen

zaizkion tolesturak begien eta ahoaren inguruan berrikustea. Bizitzako une garaietan pozik ikustea, zutaz harro.

Opari exotikoak egitea, bere omenezko olerkiak eta saiakera memorialak idaztea, urtaroak aldatzen direnean loreak eskaintzea. Familiako antzinako bitxiak ematea eta jantzita ikustea, biluzik ere.

Olioekin bere adatsa igurtzea, eta hennarekin bere lepo eta besoetan, gerrian eta izterretan, sendietan apainketa berriak asmatzea. Bere sekretu batzuen jabe egin, eta zureetako batzuk berak lapurtzen uztea. Azalaren bere orbainak eta orinen konstelazioak memorizatzea.

Elkarrekin zahartzea, eta eskutik hiriko auzoetako garai bakoitza paseatzea.

Elastikoak partekatzea, bere kopatik edatea, kirola elkarrekin egitea. Burua garbitzea eta, sorbalda marruskatzen diozun bitartean bere konfidentziak eta gabeziak entzutea. Bere alboan jostailu hautsia bilakatzea. Bere gorputza lehortzea.

Egun osoak Tropicoko hoteletako gela ezezagunetan amodioa egiten eta laztantzen igarotzea, haizagailu unatuaren erdi-itzaletan, leihoa ozeanoaren haizera irekita.

Arazoak datozenean alboan izatea, eta besarkatzen, pot ematen eta kontsolatzen sentitzea. Bere kidetasun begiradei erantzutea.

Gaixo dagoenean zaintzea, ohea ur - poltsarekin eta pijama erradiadorean berotzea, arropatzea, abenturazko filmak telebistan jartzea, edo erromantikoak edo hondamendienak, eta gustuko dituen aldizkariak ekartzea, eta gustuko dituen platerak prestatzea.

Gezurra dirudi, baina elkarrekin bizi izandako hainbeste urteen bueltan, hilerrian izango da elkarrengandik gertuen izango zareten lekua.

GAUEKO AZKEN ATEA

Gau beteetan egiten nituen ibilaldietan erakusleihen aurrean gelditu ohi nintzen, liburu-dendetan gehienetan, azalak eta gaiak eta salneurriak ikusten, ikasten ia. Kanean arimarik ez zegoen, ezta txakur herratu bat ere, eta hiriaz jabetza pribatu baten modura gozatzeaz aparte hori zen denbora-pasa bakarrenetakoa, aire freskoa irenstea, hondartzan eskalatoien aurrean atzera korrika egitea, eta parkeetako bankuetan ilargiaren leinuruan edota farolentako argitan irakurtzera etzateaz aparte.

Auzotik erdialdera jaistean, tipo bera topatzen nuen gauero eta askotan izkina beran: aurretik elkar ikusi arren, bata bestearen ondora iritsi arte ez genuen elkar agurtzen, eta gero begirada bat atzera botatzen genuen maiz. Beti erritu bera.

Egia esan orduan bakardadea maite nuen, eta egunero bizpahiru ordu bakarrik pasatzea espero nuen. Batzuetan lortu ere, eta gozatzen nituen. Askatasunaz arnas hartzea zen, nork daki. Orain berriz ezin dut ezta bakarrik lo egin ere; emaztea kanpora doanean amaren etxera itzultzen naiz, nire gelara, gaua ematera.

Orduan hilerrietara joaten nintzen maiz ez dakit zeren bila, azalpena agian, bizitzaren muina. Arratsalde osoak zihoazkidan izenak eta datak, argazkiak, hilartitzak arakatur, poesia irakurriz, pentsatuz, lagun batekin paseatuz. Beste hiri batera bidaiatzen nuenean hori baitzen aurreneko eginbeharra, hango kanposantura joan, beraien bake giro berezia nolakoa zen miatzeko.

Gaur egun ezin ditut jasan, saihestu egiten ditut. Ez bakarrik aita hil zitzaidanetik. Ezin ditut jasan.

Orduko erakusleioetako liburuetakoa azalak eta izenburuak behin eta berriro erreparatzen nituen, egunero ia, liluraturik, beraien edukien jabe egitearekin amets eginez, edo zer motatako ezagutza gordetzen zuten asmatu nahiez, besterik ez. Berri bat kokatu izan zutela erreparatzeak zirrara eragiten zidan, erosi eta irakurtzeko itxoiten banengo bezala.

Orain ia egunero aldatzen dituzte liburuak eta azalak, gero eta xarmangarriagoak direnak. Batzuk berrargitalpenak dira. Liburu dezente irakurri dut, eta beharbada horregatik haietako askok ez dutela merezi dagoeneko badakit. Noizean behin huts egiten dudan arren.

Gauza da gau haietako batean betiko tipoa topatu eta agurtu eta gero, buelta eman eta nondik zihoan ikustera gelditu nintzela. Bi etxalde haraindi izkina baten atzetik desagertu zen, eta erreflexu batez bertaratu nintzen. Zorionez aurrera ibiltzen ikusi nuen, ez oso urrun.

Begiratu ez zuenez gero, jarraitu egin nion, apur bat hurbiltzen, beste izkina batean desagertu zen arte. Berriro iritsi nintzen, justu eskailera batzuk jaisten zituen unean.

Minutu pare bat egon nintzen han geldirik, postontzi baten ondoan, zer egin jakin gabe. Eskailera haietaraino abiatu nintzen, eta Gros auzoan zeuden haietakoak ziren, soto baterantz beheratzen ziren porlanezko zenbait harmaila zurezko ate trinko batez moztuta. Horren azpitik, argi beroko lerro bat.

Harmailen gainean plastikozko kartel bat, *Anayartean*, armarri batekin. Eta sartzera ausartu ez.

URREPITXARRA

Leizeek Lurraren sexua ematen dute, mukerrak, sakonak, hezeak. Eta barruan Zeruaren ekaitzek jaurtikitako urak hazia uzten du, jalkinak, non kimuak jaiotzen diren ere, makalak, zuri-zuriak, egun gutxi batzuen ondoren hilko direnak argi ezagatik.

Sabelpe berdetik sartzen garenean, iluntasunean haitz bustiak ukitzerakoan, ikara batek zeharkatzen digu bizkarrezurra, erdi izu erdi bake, gurea bezala sentitzen dugun baina ezagutzen ez dugun giro plazentario batean barneratzen garelako.

Izu mota berezi bat da harpeek eragiten dutena, ez bakarrik mendietako gaindegiengandik bereizten dituzten arriskuengatik, adibidez, nora eror zitezkeen ez delako ikusten edo eskalatzean harria ez dagoelako lehorra eta lerratu egiten zarelako, ez, gune ezezagun eta tabuzko baten baitan sartzen zarelako baizik, inork idatzitako antzinako lege batek debekatuta.

Estutasunetatik igarotzean itoaldi itzelak izaten dira, bertikalak direnean gehien bat, benetako erditzeetako modukoak. Baina adrenalina gorputzeko hodieetan metatzen doan heinean, beste maila batera sortzen zara ere. Aurkakotasun bat egiten denean, ateratzeko zeure pisua goraka bortxatuz, dardarka, aldi berean zure barruko aurreko lekuren batetik ateratzen zarela nabaritzen duzu, eta merezi izan duela. Bizitzeko beste era bat da benetan.

Ilunpean badaudelako bizitza mota hotzak,itsuak. Likenak haitzen azalean, sitsetako multzo geldiak, saguzarrak, errekatxo edota putzuetan izkira nimiño eta gardenak, distiratsuak fokua argitan.

Baita heriotzaren hatsa ere, zaldi, ardi eta akerren hezurak handik eta hemendik sakabanaturik, garbiak. Baserritarrek botatzen omen dute azienda hiltzen denean, zeukaten gaixotasuna edo begikoa beste bati kutsa ez diezaioten edota, sinpleki, ehorztea baino errazagoa delako.

Soka gerrian lotuta, urduri, haietako bat noiz izango zaren galdetzen diozu zure buruari, metalezko eskala hutsean zoratzen hasten denean, edo maila batean bota trabatuta gelditzen zaizunean, orduan gogoia zuri gelditzen zaizulako galzoriko trantzean, eta bihotz taupadak eta arnasa trinkotzen, eta dena etengabeko gau pribatu horren intimitatean.

Eozeno hitza lehen aldiz entzun nienean zoragarria iruditu zitzaidan, mundu berri baten izena, lirikoa erabat, argi eta zero mota ezberdinak eta harrien masa itzelak gogoratzen zituena, aro urrun oso bat, bere gailurreko milurtekoekin eta bere endekapen mendeekin.

Orduan ireki eta ezkutatu omen ziren hemen dakuskigun ertz eta zulo handi ilun hauek, betiko dirudienez.

Grezierazko *eos*-tik datorrela diote, goiztiria esan nahi duena, aro hura Lurraren egunsentitzat jotzen baitute garai hartan ugaztunak zirkin egiten hasi zirelako planetaren mendi eta haran eta oihanetan, baita itsasoetan ere, baina egia esan beraiek izan ziren eguzkiaren aurrean agertu zirenak, ez alderantziz.

Niri berriz eon elea gogora ekartzen dit Eozeno entzuteak, noizbait mezan aditutakoa edo Biblian irakurritakoa Jainkoaren denbora neurri baten zentzuarekin, gizakiarentzat ulertezina epe abisalek osatzen dutelako eta epe horietako bakoitzak guretzat infinituaren baliokidea litzatekeelako.

Menturaz, edo ez, Eon feniziarren eternitateko jainkoa baitzen, geroztik erromatarrek bereganatu zutena. *Numen*, hori bai badela beste hitz sorgindutako bat, lanbrotsua eta esanguraz betea, basoko zenbait txoko bereziri eraspen magiko edota naturaz gaindiko bat lotzen ziona, askotan gero kristautu egin zituztenak ama birjinaren tokiko gurtzapenen eran.

Carlosek Donostian jaio zela dio, baina hiru urterekin Argentina aldera joan zela gurasoekin eta orduetik Hego Amerikan urte ugari emandakoa da, Euskal Herrian ikasketak egin zituen arren, orain dela lauzpabost urte itzuli zen arte.

Gaur egun ez dut uste zio ekonomikoengatik atzerrira migratzeko beharra daukagula esaterik dagoenik, iskanbila politikoak alde batera utzita, nahiz eta lanbide anitzetan bertan gelditzeak garapen profesionala murriztu ohi duen maila askotan.

Hori beti gertatuko da, Euskal Herria txikia delako eta kanpoan beti azalduko delako aukera gehiago arlo gehienetan, munduko hiriburu handietan gehien bat... baina bestela batzuetan Babilonia ameskeria hutsa izaten da.

Une egokian, hogeita zerbait dituzunean, aribidean hasia, oraindik familiako ardurarik gabea, irekia eta abenturarako prest, ordura arte zure mundu osoa izan denari bizkarra eman eta Londresera abiatzen zara, edo Madrilera, Bartzelonara, New Yorkera, Berlinera, Parisera, bizitza oparo bat bilatu nahian zentzu guztietan.

Eta han zailtasun oro eta bakardadeari aurre egin, eta bide bat zabaldu ere agian, baina denboraren poderioz zure jendea, benetakoa, faltan botatzen hasten zara. Bizimodu bat lortu duzu, eta maila askotan aberastu, baina jaioterria samintasunez oroitzen duzu, eta horren ildotik umezaroa, giroa, janari eta edariak ere, amaren ahotsaren doinua (telefonoak gozakaizten duena), itsasoaren usaina zure bazterrean.

Irabazi duzun dirutza gehiena hango egunez eguneko gastuetan joan zaizu, gauza franko garestiagoak baitziren eta erosteko ahalmenean azken finean ez duzu alde handirik nabaritu, eta alokairuan zaude edo etxebizitza bat erosita lotzen zaituen hipotekako kuotak ordaintzen zabilta.

Baita zertarako etxe bat han, erbestean, itzultzeko irrikatan baldin bazaude? Zure burua gehiago finkatzeko gero eta arrotzagoa zaizun hiriburu horretan? Ez dirudi zure ogibidean erdietsi duzun espezializazioarekin Euskadin lanpostu bat eskuratzetik egongo denik, handik gainera, eta beraz erretiroa idealizatzeari ekiten diozu itzultzeko une bezala.

Baina etorkizun hori iritsiko denean zer, etxea saldu jaioterrian beste bat erosteko? Donostian eta inguruan dituzten salneurriekin? Horren ondoren zerekin bizi? Eta familia bat osatzen baduzu, emazte/senarra eta seme alabak hara joan nahiko ote dute? Guztiak?

Baten bat gelditzen baldin bada (beharbada berari sustraiak bertan hazi zaizkiolako) ez al diozu etxebizitza utziko? Alokairuan izan ezkeroko diru bat gorde edo inbertitu dagokion aldian bertan zerbait erosteko? Eta galdu egiten bada?

Profesioan norbait izatearekin amesten igaro zenuen denbora bider lau iragan behar al duzu jaioterriko bizitzarekin amesten? Eta itzuli ondoren... senide eta lagun minak urrundik barreiatu baldin badaude? Han ere deserrotuta?, han ere bakarrik?

Handik aurrera zureen gabezia egunero gainditu behar berriro?

Bertan gelditzekotan ez zaude soilik zure buruarekin hizketan une oro, izkina eta txoko bakoitzak berba egiten dizute ere bai, zutaz maiz, zure iraganaz, zinenaz, zarenaz eta zintezkeenaz.

Leizeetan bezala.

ERRUGABEA

Azterketa gainditu ondoren lehen kasua jasotzeko irrikatan nengoen, benetako kasu propio bat izateko eta bideratzeko, eta ez idazkiak edo lege edota jurisprudentzia bilaketak bakarrik, ez aspaldiko begiratu iezadazu hau edo bestea. Ofiziozko txandan sartzeko froga bat egin behar izan genuen lehen abokatu promozioa baikinen.

Beraz elkargotik deitu zidatenean zigor arloko auzi bat tokatzen zitzaidala esanez ia bihotzekoa eman zidan, kasu kriminal bat, filmetan bezala. Bizitzako benetako dilemetan benetan eskua sartzeko aurreneko parada, egiazko ongia eta gaizkia; auzitegiko txostenak aztertzea, poliziako atestatua, aztarnak josiz bertsio bat osatzea, fiskalari aurre egin beharra...

Eta ezer gutxi ez jakiteak, ezta funtsezkoena eta garrantzirik gabeko xehetasunak ere, eragiten dituen bertigo eta urduritasunak.

Lehenbizikoa esleipenaren paperaren bila bulegora gerturatzea eta justizia jauregira abiatzea izan zen, esperientzia eza keinu eta hitz bakoitzean agertzen sailhesten saiatzen espedienteko kopia bat eskuratzea eta lanparako intimitatera ekartzea patxada ederrean eta txukunki miazteko, bere zehaztasun orotan.

Abokatu zahar batek emana zidan soberan doanarena ez egiteko aholkua, epaitegietan eta beste abokatuekin gehien bat, ez dakiela agertzen duenari laguntzen zaiolako orokorrean, baina harropuzkerietan sartzen denak gutxiesteak jaso ohi dituelako, epaileen aldetik batez ere. Baina gaztea zarenean eta dena erakusteko unean hori oso erraz entzuten da, baina zaila suertatzen da egitea.

Baina behin datu mordoa gogora isurita, eta zerbeltzen hasia, une erabakigarria etorri zen, bezeroari, kriminalari telefonoz deitzeko eta berarekin zita bat antolatzeko unea. Horrek ere, prozedurako froga bat gisa besterik ez, eragiten zituen arrisku puntuetako zirrarez.

Kriminalak benetan ez al zieten eraso egiten beren abokatuei? Ez idatzitako arau bat zen? Beti betetzen zena? Inoiz ez? Zergatik? Zein zen kastazko eta estamentuzko errespetu horren zioa behin epaia jarrita? Superstizio bat?

Militarrak eta kriminalak oso superstiziosoak omen dira.

Tipoa nire aurrean eseri zenerako ez nion bere kolore edo formetan gorroto eta erneguaren markaren hatsik aurkitzen asmatu. Bai bazeukala kinki itxura, begi bistan drogaren eraginez, baina higaduraren atzetik mutiko arrunt baten itzala argi nabaritzen zitzaion. Keinua erdi sumindua zeukan halere, edo urduria behintzat.

Eta pentsatu ez bezala ez zitzaidan gauzak ukatzen hasi ijitoen berbaro jarraiarekin, ez, alderantziz begira gelditu zitzaidan, basapizti inguratu baten begiradarekin baina nonbait eskale batenarekin ere bai, nolabaiteko konfiantza keinu baten eske edo nolabaiteko konfiantza eskaintzeko prest.

Eta pentsatu ez bezala ere ez zidan ezer kontatu, ez zidan zer gertatu zen azaldu ere. Beharbada zalantza une baten buruan epaiketa nola egingo zen adieraztera berehala pasa nintzelako, esan zidatena jakina niretzako lehenbizikoa zelako, hori inoiz aitortuko ez banion ere. Bukatu nuenean zer esan behar zuen galdetu zidan zuzenean, berak niri.

Nik atestatuan jasota zegoena aipatu nion, nola egun hartako hamaika eta hogeiak aldera ezezagun bat arropa dendaren barrura sartu izan zela, bisaia media batekin estalirik, eta aizto batekin langilea mehatxatuz kaxa eskatu eta eraman zuela.

Buruarekin baieztatu zuen. Tutik ez.

Hoberena dena ukatzea litzatekeela esan nion,

Baiezkoa egin zuen.

Poliziak atestatuan txostenak eta diligentziak metatu izan zituen moduarengatik taldeko - ezagutze saioa egin baino lehen argazki batzuk erakutsi izan zizkiotela ustea neukala esan nion. Eta horrela bazen, eta frogatzen lortzen baldin bagenuen, langileari egindako galdeketan agian, ezagutze froga osoa balioetsi genezakeela beharbada, eta akusazioaren indar gehiena froga horren gainean eraikita zegoela eta zetzala.

Baieztatu.

Ordu hartan non zegoen galdetuko ziotenean zer esan behar zuen galdetu zidan.

Ez dakit ba, erantzun nion, non zinen?

Begira gelditu zitzaidan.

Ba al dago inor zurekin egon zela edo ordu hartan ikusi zintuela baieztatu dezakeenik?, galdetu nion aurrera egiteko.

Nire amak igual, esan zidan. Baina ez da epaiketara joango, ez dut nahi.

Orduan zer egin dezakegu?, esan nuen, lepoak uzkurtuz. Ziur hori galdetuko dizutela, fiskalak galdetuko dizu, eta hobe da erantzun garbi bat izatea eta ondo botatzea.

Beno, nire amarekin nintzela esan dezaket, eta nola lekuko bezala deklaratzera ez den joango ezin izango dute ziurtatu, zerbait zalantzan gelditzen bada nire alde erabaki behar dute ezta?

Idea horren ergela zen ezen ona zirudien, edo ez nuen kontrakorik esaten asmatu, edo ideia hobeago bat planteatzen.

Tira, hori egingo dugu. Zuk itxi bandan, etxean zinela zure amarekin, ez zinela atera, ez zinen erdialdera joan eta ez zinela denda horretan sartu. Ez. Denda ere ez zenuela ezagutzen.

Baieztatu zuen.

Paperak bildu eta mahairen azalaren aurka kolpatu nituen sestran jartzeko. Hori orduan, esan nion, eta egin lizkioketen galderak eta berak eman beharreko erantzunak erreparatzeari ekin genion berri.

Amaitzean altxatu, bostekoa eman eta laguntza eskertu zidan. Epaitegiaren aurreko tabernan hamar minutu aurrerago geratu ginen.

Beraz han topatu genuen elkar, goiz gris eta zerbelean. Tipoa ile kizkurrak aparte igandez jantzita ageri zen, eta ez zuen euritakoa askatzen, makulu baten gisa erabiltzen zuela ematen zuelarik.

Zitada batean gidoia berrikusi ondoren guardien kontrola pasa eta jauregian sartu ginen. Sarreran utzi nuen toga hartzera nindoan bitartean, eta gero elkarrekin eseri ginen epaiketa aretoaren atean. Fiskala atera zen eta mintzatzeko aparte bat egiteko eskatu zidan, eta itun bat proposatu, zigor txikiago bat erantzukizuna onarpenaren truke. Ezetz esan nion, besterik ez, irribarre bat ezpainetan.

Batere eskarmenturik ez neukanez orduan ezetz esan nion irribarre bat ezpainetan, eta berak beste irribarre bat itzuli zidan, handikeriako edo, eta berriro sartu zen aretora.

Ofiziala atera zen eta deitu egin zigun. Sartu ginen, nik nire lekua mirakuluz ondo aurkitu nuen eta lasaitasun itxura egiteko ahaleginaz indarge gelditu nintzen ia. Eskerrak eserita nengoela.

Epaileak adiskidetsu agurtu zidan eta tipoa erruztatuen aulkian kokatu. Idazkari zaharrak leporatzen zizkieten karguak irakurri zituen zeremoniatsuki. Gero epaileak akusatuari altxatzeko eta mikrofonora gerturatzeko agindu zion.

Leporatzen zaiona entzun du berorrek, nola deklaritzen du bere burua, erruduna edo errugabea.

- Beno... errugabe errugabe....

ZABUA

Euria ari zuen etengabe ia pare bat aste osoz, eta haatik eten egin zenean eta izpi herabeti batzuk belartzak epelki ferekatzen hasi zirenean etxetik ateratzeko beharra sentitu zuen, bilaketa hasteko berriro. Haurtzaroko arratsalde argitsu hartan lagunarekin topatutako parkearen bila zebilen aspaldian.

Parkea zerbait esatearren, zeren orduko haurrentzako jolasgune gehienak bezala soro batean finkatutako burdinazko zenbait egituratxo arriskutsu besterik ez ziren. Atzean hiruzpalau porlanezko hodik zeuzkalarik, obra batekoak edo, nonbait baten batek bertan utziak, eta haien bizkarralde zuria zen bazter batetik bestera arakatzzen zuena.

Ondo pentsatuta gunea txukuntzean, eta gaur egun hiriko esparru oro apainduta daude, haiek kenduko zituzten lehenengoa izango ziren.

Asfalto zaharreko legarretako betiko hezetasun belzturak behintzat bertan zeuden, baina arratsalde hartako leinurua hain urrun eta aldi berean hain bizia gelditzen zitzaion ezen antzinakoa suertatzen zitzaion, mitikoa; oinak etorkizuneko zeruaren urdin trinkoan pausatzerira iritsi zen aurreneko aldia.

Urrezkoa baina txiroa zen iragan bati zegokion non bere arima argi hotzetan mamitua izan zen, arratsalde bukaezin hartan, atzera eta aurrera, joan etorrian, gora eta behera, altuago, altuago.

Zeren ordura arte ez baiten zabu batean modu egokian egiten asmatu, ikaskide eta lagun askok irakasten saiatu arren, eta ez zen zaila, etor - jaistean hankak jaso, joan – igotzean hankak luzatu, bizikleta batean ibiltzen ikastea baino askoz errazagoa, baina ezin asmatu, zerbaitek, ezintasun batek eragotziko balio bezala. Beste batek bultzatu gabe ezin izan zen zabukatu aste luze guzti haietan.

Baina arratsalde txepel hartan bai, nahigabe. Besteak, anaiak gertu jolasten zirela zabuan eseri, balantzaka hasi, oinekin atzera egin eta pixkanaka indarra hartzen lortu, eta konturatu zenerako oin berak zeruan zituen.

Geroztik pentsatua zuen une hori garrantzitsua izan zela berarentzat planeta honetako izaki bezala, agian ibiltzen ikasi zuen baino nabarmenagoa, bere buruari egunero bira ematen dion baloi honetan, eguzkiaren inguruan espazioan barrena bira ematen duen bitartean, zabukatzea beharbada bazelako litekeen dantza bakarra.

Egia esan, geroztik pentsatzen zuena eta duena zera da, zabu hartatik ez zela inoiz jaitsi, ordutik eta orain arte lurra ez duela berriro benetan ukitu, eta haren gainetik kulunka jarraitzen duela, zintzilik atzera eta aurrera, atzera eta aurrera, munduko bolaren mugimenduarekin batera, atzera eta aurrera.

Agian parkea, soroa topatzea zen jaisteko behar zuena, gelditzeko eta berriro gauza ororekin hasteko. Auskalo. Berriro hasteko eta gauzak ondo bideratzeko eta egiteko, behar zen moduan. Zabua berriro ikustea, edo zabua zegoen lekua behintzat, zabuaren itzala bederen bertatik jaitsi ahal izateko.

Iluntzen hasia zen halere, eta faroletako argi horia zabaltzen. Euria eten egin zen arren eta azalak lehortzen hasiak baziren ere, izkinak eta espaloiak gero eta ezezagunagoak egiten zitzaizkion. Nekatuta sentitzen zen eta dena dela goibelpe hartan dagoeneko itzalik aurkitzerik ez.

Ohartu zen paseatzean autobuseko linea zahar hura oraindik bazela, igual beste egun batean hartzeko parada izango zuen eta auzoko parte hartako bazterretara gain-begirada bat emateko aukera, jakiteko bederen gutxi gora behera nondik bilatu, denbora gehiegirik ez galtzeko.

GOTORLEKUA

1.- XIX. mendean penintsularako inbasioak iparraldetik etorriko zirelakoan zeuden, beti bezala, erromatarrak ekialdetik sartuak ziren arren, gure hegoaldetik, atzetik, eta moroak ere bai, baina hori aspaldian izan zen, eta orduan soro eta zelaiak aho betea zeukaten Napoleonek isuritako odolarekin oraindik, haizeak Donostiaren errautsak lapurtzen zirauen zirrikituei, eta izua hortik zetorren, Bidasoa eta Pirineoen beste aldetik, iparraldetik.

Gerra zibilak baretzen ziren tarteetan ere urruneko kanoien oihartzuna entzuten zen, Mosela, Sarre eta Sedaneko bazterrak gizonen eta zaldi gazteen gorpuez eta gurpil hautsiez estaltzen zituztenak, eta garai haietan dardara hark kemen zahar bat eragiten zuen, aroen hasieratik ez baitzen borrokarik ezagutu ez zuen belaunaldirik izan.

Giro hartan gobernuak defentsarako babesen plangintza bat idatzi zuen, eta horren baitan *Campo atrincherado de Oyárzun* izeneko sistema diseinatu, ingeniari militar aditu batzuei agindua emanaz lerroetan zenbait gotorleku proiektatzeko eta eraikitzeko.

Plazas fuertes izeneko defentsa antolatzeke era, hiri eta herriak harresitu eta gazteluratzea alegia, neolitikotik nagusia izan zena, zaharkituta gelditu omen zen, eta mendien tontorretan sartutako gotorlekuz osaturiko zenbait kilometroetako lubaki sare batez ordezkatzeko erabaki zuten.

Diru arazoak direla medio, beti bezala, proiektatu zirenen artean hiru burutu zituzten bakarrik, Guadalupeko Amakoa Hondarribian eta San Markos eta Txoritokietakoak Erreenterian.

Laster zaharkituak gelditu ziren beraiek ere, defentsa plan hori osoarekin, gerra modernoaren taktikak eta teknologiak pare bat hamarkadetan gainditu baitzituen, baina armadak erabiltzen jarraitu zuen ia mende oso batez.

Benetan erabilgarriak suertatu ziren aldi bakarra 36ko altxamenduan izan zen, aurkaketetan baina batik bat preso politikoen bilketa eta fusilamenduetan. Herriaren erdia goseak hilik zegoelarik horrelako dirutza bat horretan gastatu zuten, atzerrikoengandik babesteko, eta gero bertakoen arteko sarraskiak egiteko bakarrik balio zuten besterik ez.

2.- Gerraostea igaro ondoren, harrizko gau luzearen amaieran, lurrin arin eta arrotzak zeramatzan itsas haizeak hirurogeita hamarreko hamarkadan, frantsesak batez ere. Horrelakoa da historia, makina bat urtez morrontza eta zapalketa saihesteko iparraldekoengandik gerizatu eta azkenean askatasuna hortik jarriotzen hasi zen tantaka, irazi egiten zen.

Gogo harekin jendeak frantsesez kantatzen zuen, zenbait abesti erraz geltoki eta partisano eta metekoez eta lore malkarrez mintzatzen zirenak, eta haizea fresko eta gardena zebilen, baina ez hotza, eta osabek jertsea lepoen gainetik zekartzaten, garai hartako erara.

Telebista, internet eta egungo pizgarririk eta estresik ez zegoenez bazkalondoak luzeak ziren gero, eta tabakoak eragindako ke itxian eman beharrean umeek kanpoan ematen genituen, landetan, basoan, gotorleku zaharraren ertzetan. Sartu ezinik, baina biraka inguruan, begira eta, tartean, osaba gazteren batek lagundurik.

Guk barrura begiratzen genuen bitartean, beste sarrera edota beste garita aurkitzeko irrikatan, beraiek luzera so egiten zeuden, ozeanoaren gainean mantsoki higitzen ziren hodei zuri altu astunei. Guk elkarri belaunetako zauriak miatu eta beraiek hodeien profil argitsu urdin haiek arakatzen, erretzen, atzean zer zegoen asmatu nahian bezala, murgiltzen zen izotzeko eguzki hark bere erlantzean bestelako zerbait eramango balu bezala, beste bihar bat.

Labarretan uhinek hare-harrizko haitz ilunak eta aparrak astintzen zituzten, eta hegaletan piztiak belartzaren izpi luzeak orrazten zituzten, baina goian, tontorrean, gotorlekuan, dena bakea zen, urrezko aro bat istorioez eta elezaharrez eta proiektuez eta itxaropenez betea. Abenturazko liburuetako ametsak eta osaben esamesak eta pasadizoak nahasten ziren, Irlandako trenetan zer jaten eta zein gaizki egiten zuten lo, itsasargietako bakardade jakintsua eta portuko pilotuen ausardia eta trebezia, istripu batean batzuk Asturiasen hil ondoren gainontzeko meatzariak lanera itzultzean esaten, otoitzen eta kantatzen zutenak..

Harresien barruko aldera igarobide eta gelak hutsik zeuden dagoeneko, ahanzturaz gainezkatzen.

Harrezkero ez da orduko etorkizunaren parekorik izan.

3.- Txangoak argizko arrail bat ziren eskola eta institutuko terrenta ilunean, unadura kate amaigabe hartan. Lagunartea eta horren atseginak ez zitzaizkizun eguneroko aurpegi haiek ere

autobusean sartuta, alai eta zaratatsu, eserleketan belauniko edota zutik hizketan, gailetak jaten eta musika entzuten... zirrarak eragiten zizkizuten eta erabat esnatzen.

Mendi errepide haien bihurgune bakoitzak korapilo bat egiten zigun barruan, lotuta gelditzen zena betirako, eta une isiletan begirada malda eta zelai hezeetan barneratzen ziren bideetan galtzen zitzaigun.

Egun hartan Landarbasoko kobazuloetara abiatu ginen, linternekin sarraldi bat egiteko, eta bertan bazkaldu ondoren arratsaldean gotorlekua ikustatzeko asmoz. Eta horrela egin genuen, klase osoa ilara batean makurtu eta Lurraren erraietan, Hadesen erresuman, foku haietako argi horian eta estalagmiten arteko xendra batetik iraganez, areto ezezagunen ganga garaien azpitik, eta ibilbidea amaitzean berriro zerura atera ginen beste irekidura batetik.

Haizpearen sarrerako harrietan kromañoiak bezala eseri ginen eta aluminiozko paperean bilduta genekartzan ogitartekoak, tortillak, oliba eta patata poltsak eta freskagarri latak jan eta edateari ekin genion, oihu eta txantxen artean, ankerrak gehienak, sasoi horretan ederki asko betetzen delako esaerak dioena, hau da, barre egiten dugunean beste baten kontura barre egiten dugula beti.

Beste kolore bat zen, beste gris mota bat, laino oihal bat.

Gotorlekura iritsi ginenerako denak nekatuta geunden, baina pozik. Neskak eta mutilak beren ohiko taldeetan elkartzen hasiak ziren, batak besteari keinuak eta irribarreak egiten. Harresien gainetik genbiltzalarik, maisuak ez zekien leku deslaitu hari buruzko gauza handirik, eta nik kanoien zuloei begiratzen nien pentsatuz nola bizi zitezkeen soldadu haiek gaztelu bakarti hartan, eta inguruko basoei so egiten genien han armada batek setio bat antolatzen imajinatuz, karpekin eta zelatariekin eta guzti.

Gure pausoak zoruan oihartzun lehor bat eragiten zuten murru zabaletan, eta agurrak eta izenak esan genituen han nonbait geldi zitezen.

Korridoreetatik pare bat buelta eman, arriskurik hartu gabe, beti bezala, eta alde egin behar izan genuen, baina aldapatik jaisten ginela nik azkeneko aldiz begiratu nuen egun batean bakarrik

itzuliko nintzela neure buruari agintzen. Iluntzen hasia zen eta bazterrek beren magia hedatzen zuten, oihanaren lilura isila.

Etixerako bidaian ere ez zuen inork tutik esaten.

4.- Baina ez nintzen bakarrik itzuli, lagunekin baizik. Aurrekoarekin hautsi izan nuen jadanik eta beste bat nintzen, edo beste bat nintzela uste nuen. Gotorlekua betikoa zen baina.

Asteburu zoragarri haietako batean bestelako txango bat egitea bururatu zitzaigun, baina gure kabuz, eta harategi batean suan egiteko odolkiak eta txorizoak erosi ondoren Intxaurrondotik oinez abiatu ginen mendian barrena sasiak eta haritz zaharrak atzean utziz, eguzkitan erdi biluzik.

Ordurako gotorlekua itxita zegoen, beharbada istripuren bat gertatu zelako, eta asaldatu behar izan genuen, galzori ugari pasatuz, barrura sartzeko. Behin erdiko bailara ailegatuta, gela ilunak miaztera joan ginen.

Batzuk zikinak zeuden, zabor pilekin zokoetan, eta pintada eta ke lohiuneekin paretetan, eta pare batean zerriak eta tapakiak ere bazeuden lagata, gaua han pasatu izan zuteneko edo pasatzen zuteneko froga. Beste batzuetan aldiz militarren aztarnak zeuden, atzo arte bertan bizi izan balira bezala. Kuarteleko dutxak eta sukaldeak erdi osorik zeuden, baita zoruan lapiko erraldoi bat ere.

Sarrera nagusira hurbildu ginen barne pasabidetik zenbait egur jaso ondoren, eta tarte luze batez saiatu ondoren sutondoa piztea lortu genuen azkenean. Bakoitzak bere txorizoa edo odolkia makila batean kordatu, sugarretan zuzenki erre eta dena ogiarekin jan ondoren hiruzpalau ordu eman genuen han berriketan, musikaz, urruneko gerrez, norberak zertan lan egiteko asmoa zeukanentz, zer gustatuko litzaiokeen eta ikasketen eskarmentuaren ondoren zertan lan egingo zuela uste zuenentz, eta abar.

Haize zabalera irten ginenerako hormetako harriek bazeukaten berriro ere hotzezko distira motel hura, eta gotorlekuak bere baitako handitasunak, iraganaz hutsak, loguratzen zituen. Arratsaldeko azkeneko orduak bidea gordindu egin zuen, eta gure artean giro onak jarraitzen zuen arren, zenbait unetan ez genekien elkarri zertaz mintzatu eta ez zitzaigun barre egiteko indarrrik gelditzen.

Gauek faroletako artikoa harrapatu gintuen dagoeneko.

5.- Beste familia bateko atal nintzela, hori gerta zitekeenik ezinezkoa ematen duen arren, eguraldi atsegineko egun bat aprobetxatzeko bat bateko plana bihurtu zen Guadalupeko tontorrera igotzea, arratsaldeko ordu zehaztugabe horretan non digestioa ez duzun bukatu baina azala ez zaizun iluntzeko segidara moldatu oraindik.

Seme alabak alboan neuzkan, aldika eskutik helduta, ezkutaleku orotatik jolasten nire haurtzaroan bezala. Beraiei dena berria egiten zitzaien, dena miresgarri, eta haizea, oroimenaren azpikeria daitekeen arren, betiko epeltasunean zebilen.

Berezko sarrerek itxita jarraitzen zuten, baina inguruetatik bira ematean eskailera baterako sarbidea bortxatuta ikusi genuen, eta kontu handiz beheko ibiltoki perimetralera jaitsi ginen.

Leihoen eta troneren aurretik pasatzen ginela, eta xehetasun bakoitzari adi geundela, benetan ikaratu egin ninduela nire umeen begietan araketa eta aurkikuntzaren liluraren ñirñira antzemateak. Fosoaren fondoan zeuden pneumatiko eta plastikoak aztertzen genituen, armadaren egonaldiaren edozein arrasto bilatzen... eta, gotorlekuaren erdigunera sartuz, gela ilunetatik abiatuz barneratu ginen.

Umeek elkarrekin hasi ziren mintzatzen, elkarrekin edo beren buruarekin une batzuetan, piratez eta soldadu galduez, eta mamuez eta lehoi hilez. Une batean, semeak serio serio begiratu egin zidan eta zera esan zidan, *hemen antzinako errege baten altxorra datza.*

Hemen antzinako errege baten altxorra datza.

TXANPONA

Astlehenean taberna batean bi euroko txanpon bat eman zidaten aldaketak luzatu zizkidatenean, eta diru-zorroan sartzeraz nindoanean Alemaniakoa zela ikusi nuen. Arranoa baitzeukan.

Pentsatzen hasi nintzen arranoa zenbateraino zen ikur unibertsala, herri bakoitzekoa, alegia, herri bakoitzak propio bezala estimatzen zuen arren; herri bakoitzak osatzen duten gizakiak gizonezko-emakumezkoak deitzen dituen moduan, eta gainontzeko guztiak kanpokoak, atzerritarrak, barbaroak, edo herri bakoitzak beren herrialdea munduaren erdian dagoela uste duen era berean, erdiko lurra txinatarrek Txina aipatzen duten bezala, eta beste lurralde oro bazterrak.

Albania, Estatu Batuak (arrano buruzuridun arrantzalea), Espainia edo Gaztela - Leon, Erroma eta geroztikako enperadoregoak buru biko arranoarekin, Errusia, Mexiko, Hungaria, hainbeste eta hainbeste herriren abere totemikoa.

Eta Alemaniakoa ere bai. Antzinakoa izango zen ziur aski, baina niri gogora zetorkidan bakarria nazien zigiluetako arrano estilizatua zen, benetan ederra eta modernoa. Estetika milenarista eta sofistikatu bat sarraskia eta agizko botere asea estaltzeko, hori ere egi unibertsala izanik.

Baina hortik alde egin beharra azaltzen al zuen txanponeko arrano lodi eta ezainak, edo bestelako zerbait.

Telebistako albistegietan Berlineko parlamentuan, Bundestagean, tribunaren atzean arrano zatar haren ikonoa tamaina erraldoian bazegoela ikusi nuen. Baina nahiz eta han milaka aldiz handiagoa baitzegoen naturalagoa edo aproposagoa suertatzen zitzaidan.

Esanguratsuagoa agian ere, zeren horrelako testuinguru batean ikurra aldarrikapen edo, alderantziz, estigma bat bezala agertzen baitzen. Ez dugu inperialistak izan nahi geroan, Alemania europar bat nahi dugu eta ez Europa alemaniar bat, guk gure nortasuna badugu baina gainontzekoena begirunez tratatzeko gauza gara baita ere, eta geureaz barre egiteko gai gintezke ere bai beharbada.

Baina bi euroko txanpon batean? Metalezko ale horren pisuan ez al zegoen berez Europar batasuneko ametsa?, arrano bera euro batean zizelkatzeak ez al zion berez kutsu inperialista eta abertzalea kentzen zeinuari?

Edo eskuz esku Europako mutur batetik bestera pasa den diruan sartzean ikurra proiektu izatetik proposamena izatera pasa al da? Antibelizismo edo desmitifikazioaren aldeko keinua ote? Oldarkortasuna eta etnizismoa gainditzeko metodologia berri bat?

Desidealizazioa? Oxala.

ASMATU BEHAR IZAN NUEN

Anaia garai hartan zoriontsu zebilen uneoro, begietako distira berezia zeraman goizeko lehenengo ordutik gauean barrara hurbiltzen zen arte azkenekoa edo azkeneko biak edo hirurak hartzera, eta eguneko komeriak kontatzera. Ez zuen bizitasun izpi bat ere galtzen laneko nekeengatik.

Bikien taberna bikiak, esaten zuen jendeak, eta gu biok pozik eta harro. Egia esan hemen nirekin eman zuen boladan ez ginen horren ondo moldatzen elkarrekin, elkarbizitza zaila izaten zen zenbait uneetan laneko larritasun eta tirabirak zirela eta. Bera triste samar zebilelako ere agian hil haietan ikasketak utzi ondoren, ez dakit.

Gauza da bere kasa hasi zenean gure umezaroko auzoan beste negozio bat irekiz ilusioa berreskuratu zuela eta nik ere gertuago izan nahi nuela. Bertan jasan egin behar ondoren faltan botatzen nuelako nire ondotik, baita ni hasi nintzeneko urte gogorak gogoratzen zizkidalako ere, eta horrek ez dut gezurrik esango hunkitzen ninduen, bera gidatzeko eta ahal nuen neurrian laguntzeko premia sentitzen bainuen.

Okertzen utzi ere behar denean bere kabuz lezioak ikas ditzan eta ez beste batek irakatsita, bai, horixe baita benetan ikasteko era bakarra.

Horregatik harrituta geratu nintzen papera luzatu zidanean, bere begiradarengatik zerbait gertatu zela antzeman nuelako berehala. Gutun bat zen eta garagardo banatzailearen logoa ikusi nuen aurrena inprimatutako posta elektronikoan.

Ez duzu zorra ordaindu agindu zenuen bezala, neurriak hartu behar izango ditugu eta beste zuzkitzaileak jakinaren gainean jarriko ditugu.

Agurrik ez.

- Zer habil, estu?

- Zer hostial, eta besoak altxatu zituen, ez zuela...!

- Lasai, esan nion eskuekin airea jaisten, eta neronek lasaitzeko ahalegina egiten.

- Laurogeita hamar egunera ordainduko nuela ulertu nioan!, azaldu zuen berak, horretan gelditu ginela uste nuen! Hik zer baldintzak dauzkak, ez al diok laurogeita hamarretara ordaintzen.

- Laurogeita hamar zertara? Nik hileko kontua ixten dugunean laurogeita hamar egunerako letra bat ematen diot bai, hori al da hitz egin zenutena?

- Ez dakit ba, ez naiz akordatzen zehazki zertan gelditu ginen, nik zera ulertu nuen, hilekoa itxi ondoren berarekin egiten ikusten hindudan bezala handik laurogeita hamar egunetara dirua emango niola.

- Berarentzat alde handia da, zeren letra hartu orduko bankura eraman egiten baitu deskontatzera, eta dirua momentu horretan ematen diote bankuko komisioa kenduta, hik esaten duan moduan hiru hilabete pasa arte, edo lau, ez duk kobratzen, eta berari garagardoko markakoek baldintza gogorrak jartzen dizkiote ere.

- Bale, onartu zuen, baina tonu hau zer hostia! esan zuen papera eriaz erakusten. Ezin zidan gauzak ondo azaldu? Ez naizela astakilo bat ni!, gauzak azaltzen dizkidatenean ulertzen ditudala joer!

Isildu eta pentsakor geratu zen, Bezeroa ni naizela joer! Zer pentsatzen du horrek?, garagardo banatzaile bakarra dela? Zurekin lan egiten zuelako aukeratu nuen besterik ez!

- Hemengo garagardoko banatzaile bakarra da hiri honetan, eksklusiba dauka, eta nik bidali nuen zurera. Nahi beste garagardo izan ditzakezu botiletan, baina hemengo markako kaña ez baldin baduzu eskaintzen bezero asko galduko dituzu.

- Bale, baina ondo tratatu behar nau, berarentzat bezeroa ni nauk.

Ez nion erantzun.

Ondoko egunetan ez zeukan distira bera, erdi itzalita bezala zebilen, gaia berriro ateratzean urduritasuna gairatzeko edo txantxa eta madarikazio pare bat bota zituen arren.

Eta kasualitatez Joakin, banatzailea, kalean topatu genuen andrea eta alabekin igande goizeko buelta ematen ari ginela, eta bera agurtzera etorri zen, eta adeitsu egon zen, amaz galdetu zidan ere, eta zer moduz dena, eta taberna inoiz baino animatuagoa zekusala, eta bla bla bla. Eta nik kontra ez nion egin.

Baina justu biharamunean anaia atean agertu zitzaidan, eguerdiko hamabiak aldera, taberna jendez gainezka neukanean, barrara hurbildu eta beste paper bat luzatu zidan serio, tutik esan gabe.

Hitzik ez duzu, aste bukaerarako ez baldin badago dena ordainduta kaxa gehiagorik ez.

- Baina hau zer da tontoa edo zer hostia!, zuzendu zidan begiak altxatu bezain laster.

Itxoiteko keinua egin nion eskuarekin bitter bat hartzen, irekitzen eta zerbitzatzen hasten nintzen bitartean. Baina bera barran gelditu zen itxoiten, presionatzeko edo, batzuetan bera ere tontoa dela pentsatzen baitut.

Lekua pixka bat husten joan zenean barrako muturrera eraman nuen.

- Ez al duk berarekin hitz egin ala?

- Bai ba! Saiatu nintzen baina ez zidan kasurik egin!, "Hitz egingo dugu" esan zidan, eta gaur arte, eta orain hau esan zuen gutunari begiekin markatuz.

Hasperen egin nuen.

- Deitu iezaioke telefonoz, berarekin hitz egin eta akordio batera iritsi, eta hemendik aurrerako sistema argi bat finkatu. Nik bezalakoa nahi baduk, eta logikoa da, eta ez dut ikusten zergatik ez liake onartu behar, letrena nola dabilen azalduko diat egun batean. Baina aurrena deitu, berarekin mintzatu. Ordaintzeko badaukak?

- Bai, molda naiteke.

- Dena?

- Beno, dena ez bada zati bat eman ziezaiokeat, erdia baino gehiago behar bada.

- Baina aurrena berarekin mintzatu, berarekin akordatu, eziezaiok zati bat bidali ezer esan gabe zer hartzen ari den moduan adarra jotzen dioala pentsatuko du eta errieta bat egingo dik berriro. Bestela ahal baduk dena ordaindu eta gero deitu.

- Hori ez da asuntua!

- Badakit, baina elkarrenganako konfiantza izatea lortu behar duzue, eta konfiantza aurpegira hitz egiten eta hitza betetzen lortzen da, beste metodorik ez dago.

- Joer hitzarekin! Nik hitza bete dudala!, ez al dut nik nire hitza betetzen!

Begira gelditu nintzen.

- Hau konpondu beharra daukak, berarekin mintzatu eta batera edo zatika ordaindu, eta gerorako sistema argi bat itundu eta kito, ez da zaila, konfiantza oso erraz eta azkar galtzen dela eta oso neketsua dela berreskuratzeko, eta negozio honetan hornitzaileekin ondo eraman behar haiz.

- Ez dakit nik zer egin diot honi!

Baina asteazkenean kaña bat eta soberako pintxoak jatera etorri zenean gauean laguntzeko eskatu zidan banatzailearekin hizketan aritzera joango zenean.

Zer esango nion ba. Eguerdi gozo hartan biltegira abiatu zenean han nintzen berarekin.

Eta gizonak bostekoa luzatu zigun bioi. Baina zuzeneko esan zion ostean anaiari, Zure anaia bai tabernari fina dela, irriño natural bat agertzen.

- Bera ere bai, esan nuen.

Ez dakit horrek molestatu zion baina ezetz iruditu zitzaidan, beharbada berezkoa iruditzen zitzaiolako anaia bat defendatzea.

Baina anaiak gertatutakoa sentitzen zuela, gaizkiulertu bat izan zela eta beti ondo eramateko eta behar zen moduan ordaintzeko gogoia izan zuela, eta frogatzeko prest zegoela esan zionean, beste bat zuzendu zion.

- Eta orain arte zer egin duzu?, isilune bat, Zer egiten du zure anaiak? esan zion niri begiratu gabe.

Anaia isildu egin zen.

- Horretarako gara hemen ba!, konpontzeko!, esan zuen azkenean.

- Negozioa aurrera atera nahi du eta gauzak ondo eraman, besterik ez, bota nion eta azkenean aurpegia biratu eta begiratu zidan. Baina anaiarantz biratu zen berriro berehala.

- Eta zergatik fidatu beharko nintzateke zutaz orain? galdetu zion.

- Zer nahi duzu? Dena ordaintzea? Dena ordainduko dizut? Dirua badaukadala, eh? Dena egunera jarriko dizut eta hemendik aurrera sistema on bat akordatuko dugu bion artean biok zintzo zintzo betetzeko?

- Orain? Erantzun zion.

- Aizu Joakin, proposamen bat egin dizu, dena ordaintzeko prest dagoela esan dizu...

Bota nion, ea itxura ernegatu batez begiratu zidan.

- Zer gertatzen da? Galdetu nion.

- Asmatu behar izan nuen, erantzun zuen azkenik, mugitzen hasten zen bitartean, asmatu behar izan nuen...

Horiek ditugu orduan. Familia familia da! Jakina, jakin behar izan nuen. Ondo da. Ala, agur, agur!

Bizkarra eman baina itzuli eta atea aurpegian itxi egin zigun.

ASKATASUNAREN EGUNA

- Aurten barne – produktu gordina ehuneko 2,6a hazi da, langabezi tasa 8ra jaitsi da ia, gazte langabezi tasa 12,4ra jaitsi da, inflazio tasa 1,7koa izan da eta zor publikoa barne – produktu gordineko ehuneko 67,6ra jaitsi da -esan zuen mandatariak, eta arnas sakon bat egin zuen, eta zurrutada bat ur edan zuen edalontzitik.

- Herritarren ehuneko 78,9ak bere etxeko jabea da, gazteetako ehuneko 73,4ak unibertsitate ikasketak burutu ditu edo egiten ari da, eta erretiratuen pentsioak ehuneko 1,7a igo dira, inflazioaren proportzio berean, erosahalmena ez dezaten gal.

- Jaisteko telebista horretako bolumena! -garrasi egin zien amak alabei-, eta jantz itzazue behingoz zapata horiek, ezin izango dugula pasa azkenean!

Neskek zapatak hartu zituzten astiro begirada pantailatik kendu gabe, ama biziki urduri gerturatu eta telebista itzali zuen arte. Orduan bai zapatak janzteari ekin ziotela eta kordioak lotzeari arreta jarri ziela.

Kristal bikoitzetik bizilagunak ikuz zitezkeen maletategian gauzak sartzen, eta umeak dagoeneko kotxearen atzealdean eserita zeudela, leihoak irekitzen. Espaloian kartoi apur erdi erreak barreiatuak zeuden, txapliguen abarrak.

Igogailuan estututa sartu zirenerako amaren aiurri txarreko aurpegia ispiluaren isla ikusteko aukera zegoen, eta aita jadanik nekatuta zegoela zirudien. Bidaia laburra izan zen zorionez.

- Eguzkitako krema ekarri duzu? –esan zuen aita giltza sartzen zuela. Amak ez zuen erantzun.

Edo bai.

- Ikusiko duzu orain dagoen trafikoarekin zenbat denbora ematen dugun festa kondenatura iristeko.

Hain zuzen ere, autopistarako ezkerreko aldapa hartu zutenerako auto ilarak geldirik zeuden, eta fondotik, errotonda aldetik, txaranga musika entzuten zen oso altu. Majoretteak edo

uniformedun lerrokatuak desfilatzen zirenak berehala agertu ziren desfilatzen eta metalezko zeramaten zerbait, belarriak edo dominak, distira pila bat bidaltzen hasi zen, morseko mezu zazpiki baten gisara.

Atzetik banda agertu zen, tronpa eta tronpetetako leinuru ordenatuarekin, eta soinua edo zarata gero eta garbiago zabaltzen zihoan.

- Akabo –esan zuen amak-, desfileko aurrealdea topatu dugu eta orain guztiak igaro arte hemen trabatuta egongo gara.

Errotanda baino lehen zeuden automobiletatik jendea irteten zegoen, eta paradaren aitzinean metatzen zen.

- Falta zena –esan zuen aitak lakonikoki.

- Ikustera joan gaitezke? -galdetu zuen alaba zaharrenak.

- Ez da inor mugitzen hemendik! –erantzun zuen amak, eta ate guztiak ixteko botoia sakatu zuen.

Aitak irratia piztu zuen.

- Bere gazteengan fedea ez duen herrialde bat galduta dagoelako, bere etorkizunean fedea ez duen herrialde bat delako, eta ez dago errentagarritasun gehiago ematen duen inbertsioa prestakuntzan egiten dena baino... –jarraitu zuen mandatariak.

Andreak begietara begiratu zion senarrari.

- Zergatik egin duzu hori?

- Zirkulazioaz zerbait esango zutela uste nuen –esan zuen senarrak eskuarekin irratia itzaltzen baina aurrera begira, burua makurtu edo biratu gabe.

- Bai, kalea moztuta dagoela esango dute... –zion andreak begiratzen segitzen.

Desfilearen pasatzea ez zen bost minutuetatik askoz gehiago luzatu halere, eta itxaronaldia astuna eta beroa izan zen arren konturatu nahi zirenerako martxan zeuden berriro, eta pare bat minutu gehiagotan autopistan, zalaparta osoa atzean utzita.

Beste tarte labur batean errepide txikian zeuden goraka eta goraka egiten, izpi beteak enborren arteko guneetatik jasotzen zituztelarik, karrozeria distiraraziko zutenak, jakiterik ez zegoen. Oso eguzkitsu zegoen.

Landara iritsi zirenean espero baino lagun gehiago zegoen, mundu guztia ez baitzen hiriburuan geratu festa ospatzeko, baina kotxea aparkatu eta azkar mugitzen parrilla eta mahai libre bat aurkitzen lortu zuten hala eta guztiz ere.

Umeak basoan sartu ziren jolastera, eta amak zura oihalarekin estaltzen eta mahai tresnak eta ezpainzapiak atontzen zituen bitartean aitak haragia, ikatza eta barbakoa egiteko lanabesak ekartzeko bidai pare bat egin zituen autora.

Amak garagardo poto bat ireki zuen, umeei gain begirada bat ematera joan zen eta eseri egin zen, eta nahiz eta senarra suarekin ahalegintzen ikustean “Oso ondo, orain ordu bat txingarrak pizteko...” bota zion, azkenean baretzen zegoela eman zuen.

Gizonak azkenean ke fin bat atera zion ikatz tato mordoari eta beste garagardo bat ireki zuen.

Saltxitxak, saiheskiak eta burruntzia gresillako barren ginetik luzatzen zituen orduko Sara atzetik gerturatu zitzaion.

- Zer moduz?, -zuzendu zion.

- Ondo, hau jada badoa –eta hurrupa bat edan zuen esaldiari puntu bat jartzearen.

Hau gauzak ondo doazenean pozik –pentsatu zuen bere baitan.

Inguruko zuhaitzak oso handiak ziren eta kukula hostotsuak zeuzkaten. Nonbait hezetasuna zerion lurrari, eta haize ahul bat zebilen bakoitzean adarrek itsasoko giroko arrama bat sortzen zuten arranbera erraldoi batzuen gisara.

Neskek makila eta harriekin etxola bat eraikitzeari ekiten zioten jo eta su, teilatu eta guzti, eta beste taldekoak alaitsuk ziruditen ere, hezetasuna azukre koskorren modura kapilaritatez xurgatzen zutela antzematea iruditu zitzaion arren, eta haiei ere lurrinezko aura bat zeriela.

- Mahaira! —oihukatu zuen aitak aurreneko lukainka erreka plater batera ateratzen-, benga! Hoztu egingo dela!

Laurok eseri ziren.

- Hemendik su artifizialak ikusiko ditugu iluntzean! —esan zuen alaba zaharrenak.

- Igual bai, Sara, baina ez dakit goibelduko denean hemen egongo garen oraindik.

Andreak lukainkak erditik moztu eta bakoitzari zati bat zerbitzatu zion.

- Hitz egin beharko diagu ez? —zuzendu zion gizonari tinko begiratzuz eta nabarmen larri.

Tipoak begiratu zion, neskei begiratu zien, eta isilik geratu zen ezustekotik atera ezinik. “Ezin al zidan hau orain dela bost minutu esan, neskak basoan jolasten zeudela?” zen bururatzen zitzaion bakarra.

- Bai —erantzun zuen, eta buruarekin alabak seinalatuz sardexka haragian sartu eta mozten hasi zen.

- Tttsss!, mespretxuzko hotsak egin zuen berak ezpain - mingainarekin.

- Tttss! berriro, eta buruarekin ukatzen bere platerakoari mugimendu zakarrez.

Neskak ez ziren ezer esaten ausartzen, eta izotzaldia urtzeko aitak “gustatzen zaizue?” galdetu zien, eta alabek baiezkoa egin zuten buruarekin.

- Tttss!, berriro, eta andreak buruarekin ezeztatu zuen berriro.

Lukainkak amaitu zirenean aitak altxa egin eta saiheskien bila joan zen parrillara. Buelta eman eta pixka bat falta zitzaiela ikusi zuen, beraz garagardoa hartu eta zaintzera gelditu zen bertan.

Plater ketsuarekin itzuli zenean emakumeari malko bat ikusten zitzaion masailean, distiratsua bitxi bat bezala.

Gizona saiheskiak banatu eta plater bakoitzean artaburu erre bana kokatu zuen.

Zinkurin ito bat entzuten hasi zen, eta begiratu zionean ur arrasto pare bat zeukan bisaian barraskilo biren lirdingaren erara. Arnasa eteten eta zailtzen zitzaion.

Alaba txikiak eskua lepoan ipini zion, eta bestea negarrez hasi zen ere ikustean. Lantu zabalekin hasi zenean ama bera adia egiten hasi zen ere, elkar herrestan zeramatela ematen zuelarik, eta neskatila azkenean eraman egin zuten biek, eta atsekabe handiz negarrez hasi zen bera ere.

Aitak eutsi behar izan zion egoerari aldi eternal batez, eta jaten jarraitzen saiatu zen ere, ekaitza pasako zelakoan edo, baina azkenean mahai tresnak laga eta hasperen batez eskuak elkartu zituen.

Begiak ezkotzen nabaritu zituen, itxi eta ireki zituenean zerbait erori zitzaion. Negarrez hasi zen.

Pentsatzen jarraitzen saiatu zen, baina barkatzeko esateko gogoak besterik ez zuen sentitzen. "Barkatu...", zergatik ez bazekien ere.

Zergatik barkatzeko eskatu? Zergatik eskatu behar al zituen barkamenak?

"Dirua, diru nazkagarria".

Beste taldekoak begira egongo ziren, baina zer garrantzia zeukan horrek.

Urrundik basoaren profilak zeruaren kontra ebakitzen ziren. Gainean mendi tontorrak bakarti zirauen jende guzti horrekin magalean eta udaberria iritsita. Beste mahaietako bazkalorduko isil betea eta azantza txikietako esporak aire freskoan hedatzen ziren eta haiek ere bereganatzen zituzten.

Laurek negarrez segitzen zuten baina.

- Laurok negarrez Askatasunaren egunean... –esan zuen alaba zaharrak.

BAZIOTEN

Denek ero bat zela zioten ez zuelako inoiz deus esaten. Denek homosexuala zela pentsatzen zuten ez zelako inoiz gizon batekin agertzen. Denek bizirik zirauela uste zuten.

Denek diru asko zeukala sinesten zuten arropa zahar berberak janzten zituelako beti eta ez zuelako apenas gastatzen, auzoko eta erdialdeko dendetan behintzat. Denek zaila zela suposatzen zuten bakarrik zebilelako beti, mezetan ere senidekorik gabe jesartzen zelarik. Denek laguntza behar zuela zioten frontoian eta parkean kromoak oparitzen zitelako umeei.

Denek zerbait egin zuela sumatzen zuten iraganeko gauza ugari ez zituela gogoratzen zioelako.

Denek estimatzen zutela esaten zioten elkarri, baina bere hiletara ez zen inor agertu.

AURKIBIDEA

SURFLARIAK

JAKINTSUA

PASAIA

DELETE

ILARGIAREN EZPALAK

FERRY

KANPOSANTUA

MUTIKOA

ERLOJUA

AMODIOA

GAUEKO AZKEN ATEA

URREPITXARRA

ERRUGABEA

ZABUA

GOTORLEKUA

TXANPONA

ASMATU BEHAR IZAN NUEN

ASKATASUNAREN EGUNA

BAZIOTEN